

# HERRITARREK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN HARREMANETAN DITUZTEN ESKUBIDEAK ETA ESKUBIDE HORIEK BABESTEKO BIDEAK

Zuzenbideko Gradua

Egilea: Garazi Elexalde Urrutia

Zuzendaria: Kepa Solozabal Bergara

Bilbo, 2024ko ekaina



## **LABURPENA**

Herritarrek, administrazio publikoarekin harremanetan daudenean dituzten eskubideak eta horiek babesteko bideak ezagutzeak ezinbesteko garrantzia du. Izan ere, sarritan informazio horren inguruko ezjakintasunak, herritarrek babesgabezia egoeran uzten ditu. Lan honetan, herritarrek administrazioarekiko dituzten eskubideak aztertuko ditugu, azken urteotan garatu diren administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeari dagozkion eskubideei garrantzia berezia emanez. Ondoren, herritarrek administrazioarekiko harremanetan dituzten eskubide horiek defendatzeko bideak azaldu eta herritarrek informazio hau jasotzeko egun dituzten bideak aztertuko ditugu, haien bermeak hobetzeko proposamenak egitearekin batera.

## **ABSTRACT**

Knowledge of the rights of citizens in their relations with the Public Administration and the ways to protect them is of vital importance. Often, ignorance of this information leaves citizens in a situation of defenselessness. In this paper we will analyze the rights of citizens in their relations with the Administration, with special emphasis on the rights related to the use of electronic media. These rights have been especially important in the last few years. We will then present the channels citizens have to defend these rights in their relations with the Public Administration and analyze the current channels of access to this information, as well as make proposals to improve the guarantees of citizens' rights.

## **RESUMEN**

El conocimiento de los derechos de la ciudadanía en sus relaciones con la Administración Pública y de las vías para su protección es de vital importancia. Y es que, a menudo, el desconocimiento de esta información deja a la ciudadanía en una situación de indefensión. En este trabajo analizaremos los derechos de la ciudadanía ante la Administración, haciendo especial hincapié en los derechos relativos a la utilización de medios electrónicos en sus relaciones con la Administración Pública, ya que son derechos con especial importancia en los últimos años. A continuación, expondremos los cauces para defender estos derechos de la ciudadanía en sus relaciones con la Administración y analizaremos los canales actuales de acceso a esta información, así como realizar propuestas para mejorar las garantías de los derechos de los ciudadanos.

## **LABURDURAK**

AG: Auzitegi Gorena.

AGE: Auzitegi Gorenaren Ebazpena.

AK: Auzitegi Konstituzionala.

AKE: Auzitegi Konstituzionalaren epaia.

APEL: Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen Legea.

BJKN: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa.

EB: Europar Batasuna.

EHA: Euskal Herriko Autonomia Estatutua

EK: Espainiar Konstituzioa.

LENF: Liburutegien Elkarte eta Erakundeen Nazioarteko Federazioa.

LO: Lege Organikoa.

# AURKIBIDEA

1.	Sarrera .....	4
2.	Marko juridikoa .....	5
3.	Herritarrek administrazioarekin harremanetan dituzten eskubideak.....	6
4.	Eskubideak babesteko bideak: Administrazioaren errekurtsio sistema.....	14
4.1.	Administrazio jardueraren ofiziozko berrikuspena	14
4.2.	Administrazio errekurtsioak	16
4.2.1.	Gora jotzeko errekurtsioa	16
4.2.2.	Aukerako berraztertze errekurtsioa	17
4.2.3.	Berrikuspen errekurtsio berezia	18
4.2.4.	Errekurtsioa tarteratzeko baldintza orokorrak	19
5.	Eskubideak babesteko bideak: Administrazio egintzen kontrol judiziala .....	20
5.1.	Administrazioarekiko auzi errekurtsioa	20
5.2.	Auzitegi Konstituzionalaren aurreko babes-errekurtsioa	22
6.	Aurretiazko erreklamazioak eta Administrazio bidea agortu beharra .....	25
7.	Herriaren Defendatzailea eta Arartekoa .....	29
7.1.	Marko juridiko orokorra	29
7.2.	Arartekoaren aurrean kexa aurkeztea	32
8.	Herritarrak administrazio publikoaren aurrean defendatzeko bideak indartzeko hobekuntza-proposamenak .....	34
9.	Ondorioak .....	37
10.	Eranskinak .....	39
11.	Bibliografia .....	41

## 1. SARRERA

Herritarrentzako ezinbestekoa da administrazioarekin harremanetan daudenean dituzten eskubideak eta horiek babesteko bideak ezagutzea, zenbait arrazoirengatik. Hasteko, defentsa bide horiek bitartekoak ematen dizkiete herritarrei Konstituzioan eta beste lege batzuetan aitortutako oinarritzko eskubideak babesteko. Eskubide horien artean daude berdintasunerako eskubidea, askatasunerako eskubidea, intimitaterako eskubidea eta prozesu egoki baterako eskubidea. Oinarritzko eskubide horiez gain, herritarrek administrazioarekin harremanetan daudenean beste eskubide zehatzago batzuk ere badituzte, gero aztertuko dugunez.

Herritarrek eskubideak babesteko defentsa-bideak izateak, eta herritarren eta administrazio publikoen arteko gatazkak konpontzeko mekanismo formalen sistema bat ezartzeak, herritarren eta Estatuko erakunde publikoen arteko botere-oreka bermatzen du. Izan ere, herritarrek administrazio publikoaren ekintzak kontrolatzeko eta zalantzan jartzeko tresna eraginkorrak izatea ahalbidetzen du, botere gehiegikeriak saihestu eta gardentasuna sustatzeko. Zuzenbide estatu batean, pertsona guztiak, agintari publikoak barne, legearen eta zuzenbidearen mende daude eta defentsa bide horiek, herritarren eskubideak eta askatasunak modu eraginkorren babestuta egotea bermatzen dute.

Lan honetan, herritarrek administrazioarekiko dituzten eskubideak aztertzeaz gain, eskubide horien urraketaren aurrean herritarrek jarraitu beharreko defentsa bideak aztertuko ditugu. Helburua, bide horiek ezagutu eta ezagutaraztea, oinarritzkoa delako herritarrek administrazioaren aurrean jasaten duten edozein bidegabekeriaren aurrean jarduteko bidea zein den jakitea.

Lanaren lehen tartean, marko juridiko orokorra aztertuko dugu, eskubideen defentsaren oinarri juridikoa eta herritarren eta administrazioaren arteko harremana arautzen duten funtsezko printzipioak azalduz. Ondorengo atalean, herritarrek administrazioarekin harremanetan dituzten eskubideen zerrendari erreparatuko diogu eta jarraian, Administrazio publikoaren aurrean eskubideak defendatzeko bideak ikusiko ditugu.

Lehendabizi, Administrazioaren errekurso sistemaren gorabeherak garatuko ditugu, herritarren aurkaratu nahi den erabakia eman duen administrazioaren aurrean errekurso, erreklamazio edo kexa aurkeztea baita defentsarako lehen instantzia. Administrazio bidea gatazka konpontzeko nahikoa ez denetan, egintzen kontrol judiziala eta legezketasuna bermatu eta herritarren eskubideak babesteko, jurisdikzio bidera jotzeko aukera du herritarrek, epaileen esku utzita bere eskubide urraketaren aurreko babesa. Atal honekin amaitzeko, Herriaren Defendatzaileak zein Arartekoak burutzen duten lanari erreparatuko diogu, bi hauek erakunde independente modura jarduten dute, eta administrazio txarraren, botere abusu edo oinarritzko eskubideen urraketa baten aurrean, bitartekaritza eta ebazteko bide alternatiboak proposatzen dituzte.

Horren ostean, herritarrek administrazio publikoaren aurrean defendatzeko bideak ezagutarazi eta indartzeko hobekuntza proposamenak egingo ditugu, eta azkenik, herritarrek haien eskubideak ezagutzeak duen garrantzia azpimarratuko dugu, lanaren ondorio orokorrak azaltzearekin batera.

## 2. MARKO JURIDIKOA

Administrazio publikoa, interes orokorrak objektibotasunez zerbitzatzen dituzten organo eta erakundeen multzoa da, bere jardura legeen pean betetzen du eta dagozkion zerbitzu publikoak ematen ditu. Sektore Publikoaren araubide Juridikoa jasotzen duen 40/2015 Legearen 2.3. artikulua arabera, Espainian, Administrazio Publikoa zenbait erakundek osatzen dute: Estatuko Administrazio Orokorrak, autonomia-erkidegoetako administrazioek, toki-administrazioa osatzen duten erakundeek eta hauei lotutako edo haien mendeko edozein organismo publiko eta zuzenbide publikoko entitateek.

Administrazio Publikoa Estatuko, autonomia-erkidegoko edo tokiko gobernuan kokatuta dago, horregatik, 1978ko Espainiar Konstituzioak (EK) eskumen banaketa egiten du. Estatuaren eta Autonomia-erkidegoen arteko eskumen banaketa 148 eta 149. artikuluetan egiten du. 148. artikulua autonomia-erkidegoek eskura ditzaketen kompetentzien gaiak jasotzen ditu eta 149. artikulua printzipioz, eskusiboki Estatuari egozten zaizkion gaiak. Hala ere, 149.3. artikuluan zehazten da, EKK beren-beregi Estuari esleitzen ez dizkion gaiak autonomia-erkidegoei egokitu ahal zaizkiela, haien estatutuaren arabera. Autonomia estatutuen bidez gai horien gaineko eskumena bereganatu ez bada, estuari dagokio, eta, gatazka izanez gero, estatuaren arauak autonomia-erkidegoetako arauen gainetik nagusituko dira, horiei beren-beregi eskumen eskusiboa eman ez zaien neurrian.

EKren 149.1.18. artikulua, Estuari esleitzen dio administrazio prozedura erkidea arautzeko eskumena, autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik eratorritako berezitasunei eta administrazio publiko guztien erantzukizun sistemari kalterik egin gabe.

Horrez gain, EKren IV. titulua Gobernuari eta Administrazio Publikoari dago zuzenduta. Atal honetan zehazten dira Administrazio Publikoa gidatuko duten printzipioak, hain zuzen 103. artikuluan, printzipio hauek administrazio publiko guztiei zaie aplikagarri<sup>1</sup>. Artikulu honen arabera, administrazio publikoak lege eta zuzenbidearen menpe jardungo du beti, interes orokorra babestuz efikazia, hierarkia, deszentraltasun, deskontzentrazio eta koordinazioa oinarri izanik. Printzipio horiek, administrazio publikoek jarraitu beharreko prozedura formal baten bidez garatzen dira. Prozedura hau lege batez arautuko da, betiere interesdunei entzunaldia emango zaiela bermatuz, EKren 105. artikulua arabera.

103. artikuluan aipatzen den prozedura formala Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legeak (APELeK) arautzen du. Lege honek, EKK ematen dion marko konstituzionalaren pean arautzen du herritarrek administrazioaren aurrean dituzten gutxieneko eskubide eta bermeak.

Aurrerago aztertuko dugun 39/2015 legearen 13. artikulua da, hain zuzen, pertsonak administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak zerrendatzen dituena. 13. artikuluko zerrendaz gain, interesdunei lege berdineko 53. artikuluko eskubideak ere aitortzen zaizkie, eta 13. i) atalean jasotzen den moduan, baita

---

<sup>1</sup> AKE 85/1983, 1983ko azaroaren 7a, 8. zuzenbide oinarria

Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak ere. EKren I. tituluak jasotzen ditu oinarritzko eskubide eta askatasunak.

Era berean, Europa mailan ere jasotzen dira herritarrek administrazioarekiko dituzten eskubideak. Hain zuzen ere, beranduago aztertuko dugun 2000/C 364/01 Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 41. artikulua zehazten du pertsona orok duela administrazio on baterako eskubidea.

### **3. HERRITARREK ADMINISTRAZIOAREKIN HARREMANETAN DITUZTEN ESKUBIDEAK**

Espainia zuzenbideko estatu demokratiko bat den heinean, herritarren eskubide eta interesak babesteko, ezinbestekoa da administrazioen jarduna kontrolatzeko sistema bat eraikitzea. Izan ere, administrazio publikoak interes orokorra objektibotasunez betetzen du, horregatik, ordenamendu juridikoaren arabera jarduteko beharra du.

Administrazio publikoak helburu hau betetzen duela bermatzeko kontrol orokorra administrazio prozedura-erkidearen bidez bideratzen da. Administrazio Publikoek haien jarduna legeen eta zuzenbidearen pean egiten dute (EK 103. art.), administrazio-jardueraren eraginkortasunaren eta herritarren eskubide eta interesen babesaren arteko beharrezko oreka bermatu ahal izateko, administrazio publikoaren helburua den ongizatea bermatzea baita. Administrazio onerako eskubidea, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak 1980ko martxoaren 11an onartutako R(80) 2 Gomendioan oinarritzen da, zeina gutxinaka garatua izan zen 2000ko abenduko Oinarritzko Eskubideen Europako Gutunak 41. artikuluan oinarritzko eskubide modura aitortu zuen arte (Rodríguez-Arana Muñoz, 2012).

Gutunean aldarrikatu zenetik, administrazio onaren eskubidea jurisprudentziaren esparrutik zuzenbide positibora pasatu zen, ordutik aurrera, 41. artikulura lotuta geratzen da Europako Administrazioa, Europako Zuzenbidearen aplikazio zuzenean aipatutako prozedura-eskubideak errespetatzera (Viñuales Ferreiro, 2015). 41. artikulua, bai jurisprudentziaren eta bai legegintzaren aldetik garatua izan da, zenbait kasutan, horien artean dago APEL, 39/2015 legea.

Administrazio publikoen jardun ona bermatzeko, ezinbestekoa da lehenengo administrazioak jarraitu beharrezko prozedura xehatu bat zehaztea, administrazioak bere borondatea erakus dezan; hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen bidez egiten da. Ondoren, beharrezkoa da herritarrek administrazioarekiko harremanetan izango dituzten eskubideak zehaztea. Administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna dutenek dituzten eskubideak 39/2015 legearen II. Tituluko lehen kapituluan arautzen dira, administrazio jarduketa arautzen den atalean, zehazki 13. artikuluan.

Lehen esan moduan, 39/2015 legearen 13. artikulua zehazten ditu herritarrek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak, oho har, hauek dira:

- a) Administrazio publikoekin irispide-puntu elektronikoen baten bidez komunikatzea.
- b) Baliabide elektronikoen erabiltzeko laguntza jasotzea.
- c) Norberaren autonomia-erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea.
- d) Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea.

- e) Errespetuz eta begirunez tratatuak izatea, erraztasunak emanez beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- f) Administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzea.
- g) Identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.
- h) Datu pertsonalak babestea.
- i) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak.

Hurrengo atalean, eskubide horiek garatuko ditugu, administrazioarekin harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzeari dagozkion eskubideei garrantzia berezia emanez.

**a) Administrazio publikoekin komunikatzea Administrazioaren irispide-puntu elektroniko orokor baten bitartez.**

Eskubide honek administrazioari galdatzen dio herritarrek harekin komunikatu eta harremanak izan ahal izateko interneten web orri bat edo irispide puntu bat sortzea. Gainera, bermatu behar du orri horrek herritarrek behar duen informazio guztia jasotzeko eta horren bidez egikaritu behar dituen eskubide guztiak egikaritzeko irizpide tekniko guztiak jasotzen dituela (APEL 12.1. art.)

Pertsona fisikoen kasuan, haiek erabaki dezakete administrazio publikoekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiliko dituzten ala ez, salbu administrazio publikoak bide elektronikoak erabiltzera behartzen baditu. Baina badaude administrazio-prozeduretan harremana bitarteko elektronikoz egitera beharturik dauden subjektu batzuk. Horien artean daude pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko entitateak, eta 39/2015 legearen 14. artikulua 2 eta 3. puntuetan jasotako gainerakoak.

11/2007 Legeak arautzen zuen herritarrek zerbitzu publikoetarako sarbide elektronikoa, eta bertan garatu zen lehen aldiz herritarrek administrazio publikoarekiko harreman elektronikoak izateko aukera. Egun, 39/2015 legearekin, bide elektronikoak erabiltzea eskubide bat izatetik derrigortasun bat izatera pasatu da zenbait kasutan, eta gertaera hori auzi gatazkatsu bihurtu da (Martín Delgado, 2017). Aldaketa honen aldekoek, argudiatzen dute interes publikoaren aldekoa dela, bai EKren 103.1. artikuluan jasotako eraginkortasunaren printzipioa eta bai gardentasun printzipioa errespetatzen dutelako. Hala ere, aldaketak disfuntzio batzuk sor ditzake bitarteko elektronikoetarako sarbide edo erabilera-gaitasun txikiagoa duten administratuekin, eten digital delakoa sortuz (Pascua Mateo, 2016).

Zenbait adituk argudiatzen dute derrigortasun hori ezartzeak administrazioari abantaila gehiago eta herritarrei berme gutxiago ekartzen dizkietela, eta baldintza eta bermeak zorrotz beharko lirakekeela herritarrek babesgabezia egoeran uztea ekiditeko (Cotino Hueso, 2018). Izan ere, administrazioarekiko harremanetan bide elektronikoak erabiltzera behartuta dagoen subjektu batek, legez aurreikusitako epean hori egiten ez badu edo lortzen ez badu, bere eskubidea galduko du, nahiz eta izapide hori presentzialki epearen barruan egiten saiatu, baldin eta baldintza hori herritarren eskubide eta interes legitimoen zentzu mesedegarrienean interpretatzen ez badira (Sala Sanchez, 2016).



Aurrekari horiek kontuan hartuta, legegileak beharrezkotzat jo zuen lege-aurreikuspenak garatu eta zehaztea, besteak beste, bitarteko teknologikoen erabileran esku hartzen duten eragileei baliabide horiek eraginkortasunez erabiltzen laguntzeko, eta, aldi berean, lege horietan araututa dauden eta erregelamendu jarduerarako tartea uzten duten gaiak argitu eta zehazteko. Horretara dator Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua, 203/2021 Errege Dekretuak onartutakoa, horrez gain, 6/2020 Legeak ere, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen ditu.

3. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan jasotakoei. 14, lehen zehaztuak; beraz, erabat justifikaezina den gabetze bat sartzen da, eta, horren ondorioz, Administrazioarekiko lehen aipatutako harreman elektronikora behartuta dagoen subjektu batek, legez aurreikusitako epean hori egiten ez badu edo lortzen ez badu, bere eskubidea galduko du, nahiz eta izapide presentziala epearen barruan egiten saiatu, baldin eta manuak herritarren eskubide eta interes legitimoen zentzu mesedegarrienean interpretatzen ez badira, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen aplikazioari dagokionez errealitatean gertatu den bezala.

**b) Baliabide elektronikoa erabiltzeko laguntza jasotzea administrazio publikoekiko harremanetan.**

Aurreko eskubidearekin lotuta, ezinbestekoa da baliabide elektronikoen erabileran arazoren bat egotekotan administrazioak herritarrak lagundu behar izatea. Eskubide honek administrazioa posizio aktibo batean jartzen du, bera baita laguntza eman behar duena.

Aztertzen ari garen 13. artikuluan gain, APELen 12. artikulua ere azpimarratzen du administrazioek bermatu beharko dutela interesdunek administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez erlazionatzeko eskubidea, horretarako, beharrezkoak diren sarbide-kanal, sistema eta aplikazioak haien esku jarrita.

Legeak, eskubide horri dagokionez, garrantzia berezia ematen die bide elektronikoen komunikatzaile behartuta ez dauden interesatuei. APELen 12.2. artikulua araberak, bide elektronikoa erabiltzaile behartuta egon ez arren hauek erabiltzeko laguntza hori eskatzen badute, administrazioak laguntza eman beharko die hauei ere, batez ere identifikazioari eta sinadura elektronikoa, eskaerak erregistro elektronikoen orokorraren bidez aurkezteari eta kopia autentikoa lortzeari dagokionez.

**c) Norberaren autonomia-erkidegoan ofizialak diren hizkuntzak erabiltzea, lege honetan eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.**

39/2015 legearen 15. artikulua zehazten du, Estatuko Administrazio Orokorra izapidetzen dituen prozedurarako hizkuntza gatzelania izango dela. Hala ere, EKren 3.2. artikulua zehazten da, dagokion autonomia-erkidegoko hizkuntzak ere ofizialak izango direla, bakoitzaren autonomia-estatutuan jasotakoaren arabera. Beraz, Estatuaren Administrazio Orokorra autonomia-erkidego baten duen organoetara jotzean, interesdunak eskubidea izango du prozedura berak aukeratutako hizkuntza izapidetzeko. Autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako administrazioek

izapidetutako prozeduretan, berriz, dagokion lege-autonomikoetan ezarritakoari lotuko zaio hizkuntzaren erabilera (15.2. art.).

Prozedura batean interesdun bat baino gehiago dagoenean eta hizkuntza ofizial ezberdinak erabiltzen dituztenean, prozedura gaztelaniaz izapidetuko da, baina dokumentu eta lekukotasunak haiek aukeratutako hizkuntzan emango zaizkie interesdunei. Gainera, administrazio publiko instrukzio egileak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegoko lurraldetik harago ondorioak izan behar dituzten dokumentu edo espedienteak (15.3. art.)

EA Eren kasuan, Euskal Herriko Autonomia estatutuaren (EHAE) 6.1. artikulua dio *“Euskara, Euskal herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango da Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dute bi hizkuntzok jakiteko eta erabiltzeko eskubidea”*. Artikulu horren harira, azaroaren 24ko 10/1982 Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzekoak, ezarri zuen erregulazio juridikoa. Euskararen Legearen 5.2 artikulua oinarritzeko hizkuntza-eskubideak aitortzen dizkie euskal herritarrei. Lehenengoa eta garrantzitsuena honako hau da: *“Administrazioarekin edota Autonomia Erkidegoan kokatutako edozein erakunde edo entitaterekin harremanak euskaraz zein gaztelaniaz izateko eskubidea, ahoz nahiz idatziz”*.

**d) Informazio publikora, artxiboetara eta erregistroetara irispidea izatea, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta gainerako ordenamendu juridikoan aurreikusitakoaren arabera.**

Eskubide honek bi irismen ditu; alde batetik, interesdun direnek izapidetzen ari den prozeduraren berri izateko eskubidea eta beste alde batetik, administrazio publikoen erregistro eta artxiboetara irispidea izatearena, zeina 19/2013 legeak ezarritako baldintzen arabera egingo den.

Aipatutako 19/2013 legeak hiru helburu nagusi ditu. Hasteko, jarduera publikoaren gardentasuna areagotu eta indartzen du, administrazio eta erakunde publiko guztientzako publikitate aktiboko betebeharraren bidez. Bigarrenik, informazioa eskuratzeko aukera aitortzen eta bermatzen du, eremu subjektibo eta objektibo zabaleko eskubide gisa. Azkenik, arduradun publikoek bete behar dituzten gobernu onaren betebeharrak ezartzen ditu, eta baita betebeharrak horiek ez betetzearen ondorio juridikoak ere.

Auzitegi Gorenak (AG), gardentasuna administrazio jarduketaren printzipio konstituzionaltzat hartu du, administrazio erregistro eta dokumentutara irispidea ematen duen EKren 105.b). artikuluan oinarrituta. Gai honen inguruan garatutako jurisprudenzian ikus daiteke, gardentasuna eta informazio publikoa eskuratzeko konstituzio-eskubidea administrazio prozedura zehatz batzuetan aplikagarri izatetik, 19/2013 legearen ondoren, Estatuaren funtsezko oinarri izatera pasatu dela (Cid Villagrasa, 2022). 19/2013 legeaz geroztik, AGk eskaintzen duen gardentasunaren definizioa hurrengoa da: *“La transparencia activa que se refiere a las determinadas obligaciones de publicidad que comprende a los sujetos incluidos en el ámbito de aplicación de la norma y por otro, la transparencia pasiva, que autoriza a los ciudadanos a solicitar y acceder a*

*información que está en poder de los organismos y entidades sujetas a la ley.*<sup>2</sup> Beraz, eskubide honek propioki horretarako ezarritako legearen babesaz gain, AGk sortutako jurisprudentziaren babesa ere badu.

**e) Errespetuz eta begirunez tratatuak izatea agintarien eta enplegatu publikoen aldetik, erraztasunak emanaz beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko.**

Eskubide honek bi atal ditu. Errespetuz eta begirunez tratatuak izateko eskubidea herritarrek administrazioaren aurrean duten eskubide garrantzitsuenetako bat da. Hala ere, eskubide hau ez da soilik administrazioarekiko harremanetan aurreikusten, EKK 10. artikuluan argi uzten du pertsonen duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinekoak, nortasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta besteekiko eskubideak ordenu publikoa eta giza bakearen oinarriak direla, eta horrez gain, EKren 14. artikulua xedatzen du Espainolak legearen arabera berdina direla eta ez dela inolako baztertzetik onartuko. Errespetuz eta begirunez tratatzeaz gain, administrazio publikoek erraztasunak eman behar dizkie herritarrei haien eskubideez baliatu eta betebeharrak betetzeko.

**f) Administrazio publikoaren eta agintarien erantzukizuna eskatzea, legez hala dagokionean.**

Administrazio publikoa, ordenamendu publikoaren pean dagoen heinean, berme emaila modura jardun behar du. Erantzukizun eskari hau elkartasun printzipioan oinarritzen da, izan ere, ez litzateke zilegi izango subjektu pribatuak botere publiko batek eragindako kalte bat jasan behar izatea.

EKren 106.2. artikulua ezartzen du subjektu pribatuek, legeak finkatutako eran, eskubidea izango dutela, beren ondasun eta eskubideetan izandako kalte guztien ordaina jasotzeko, indar nagusiko kasuetan izan ezik, baldin eta kalte horiek herri-zerbitzuen jardunbidearen ondorioz gertatu badira. Gauza bera adierazten du urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 32.1. artikulua eta horrez gain, 32. artikulua zehaztasun gehiago jartzen ditu. Hasteko, 32.2. artikulua baldintza batzuk galdatzen dizkio kalteari administrazioaren aurrean erantzukizuna eskatu ahal izateko: Kaltea benetakoa, ekonomikoki neurgarria eta indibidualizatua izan behar da, pertsona edo pertsona talde batekiko. Kaltea da ondare erreklamazio ororen elementu objektiboa, arau baten urraketaren ondorioz jasaten den gutxitze material edo morala izan daiteke.

Kaltearen izaeraz gain, erantzukizuna administrazioaren aurrean galdagarria izan ahal izateko, jurisprudentziak ezartzen du administrazio egintzaren eta eragindako ondorio kaltegarriaren arteko kausaltasun erlazio bat egon behar dela, eta lotura hori berehalakoa, eskusiboa eta zuzenakoa izan behar dela erreklamazioaren ondorio kaltegarriari dagokionez<sup>3</sup>.

**g) Lege honetan aurreikusitako identifikaziorako eta sinadura elektronikorako bitartekoak lortzea eta erabiltzea.**

<sup>2</sup> AGE 3866/2020, 2020ko azaroaren 19a, 4614/2019 Kasazio-errekurtsoa, 2. zuzenbide oinarria.

<sup>3</sup> AKE 112/2018, 2018ko urriaren 17a, Konstituziozkontrako errekurtsoa, 5. zuzenbide oinarria

Identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak lortu eta erabiltzeko eskubidea estu lotuta dago artikuluko honetako a) eta b) atalekin, izan ere, herritarrek eskubidea dute administrazioarekiko harremanetan irispide puntu elektronikoko orokor baten bidez komunikatzeko bitartekoak behar dituzte.

39/2015 legearen 9. artikuluko prozeduran interesdun direnak identifikatzeko sistemak ezartzen ditu, administrazioarekin harremantzeko bidearen arabera. Harremana aurrez aurrekoa bada, NAN txartelaren edo baliokidearen bidez egingo da, eta elektronikoa bada, sistema ezberdinak ezartzen dira; sinadura elektronikoa eta zigilu elektronikoa, baldin eta ziurtagiri horiek konfiantzazko ziurtapen-zerbitzu emaileen zerrendan sartuta dauden emaileek eman badituzte eta administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren termino eta baldintzetan.

Horrez gain, identifikazioaren eta sinadura elektronikoen arteko bereizketa egiten du. Orokorrean, administrazio prozedurako edozein egintza burutzeko, nahikoa izango da interesatuen identitatea egiaztatzea lege honek berak aurreikusten dituen bideetako bat erabiliz. Bestalde, sinadura elektronikoa erabili beharko da interesatuaren borondate eta adostasuna egiaztatatu behar direnean, hain zuzen ere hurrengo kasuetan: Eskabideak egiterakoan, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkeztean, errekurtsoak jartzean, akzioetan atzera egitean eta eskubideei uko egitean (39/2015 Legearen 11. art).

Azken urteotan, administrazioarekiko harremanetan gero eta gehiago erabiltzen ari dira bide elektronikoa, hala ere, honek pertsona edo kolektibo batzuk babesgabezia egoeran uzteko arriskua areagotzen du. 40/2015 legearen 3. artikuluko arabera, administrazioak herritarrei zerbitzu eraginkorra, sinpletasuna, argitasuna eta herritarrekiko hurbiltasuna eta konfiantza legitimoa bezalako printzipioak jarraitu behar ditu bere jardunean, besteak beste, baina tradizionalki egin izan diren aurrez-aurreko izapidetzeen eta identifikaziorako erabili izan den papereko sinaduraren mugaketak printzipio horiek kolokan jartzen ditu. Izan ere, badaude izapide horiek elektronikoki egin ahal izateko bitarteko elektronikoa edo gaitasun teknologikoa ez dituzten kolektibo asko (Jiménez Asensio, 2021). Egoera honek, administrazioarekiko harremanak irisgarriago egin beharrez, asko zailtzen eta administrazioa urrunduko egiten du herritarrengandik.

Herritarrek identifikaziorako eta sinadura elektronikoa izateko bitartekoak lortu eta erabiltzeko duten eskubideari itzuliz, honen egikaritzarako, administrazio publikoek konfiantzazko zerbitzu elektronikoa jarri behar dituzte haien esku. Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 910/2014 (EB) erregelamendua, identifikazio elektronikoa eta barne-merkatuko transakzio elektronikoenetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoak erregulatzen ditu konfiantzazko zerbitzu elektronikoa. Espainia mailan, 29/2003 legea indargabetu zuen 6/2020 legea da konfiantzazko zerbitzu elektronikoen zenbait gai arautzen dituen.

Euskal administrazioek ere, aurrera egin dute herritarrei kalitatezko identifikazio eta sinadura elektronikoko mekanismo seguruak eskaintzeari dagokionez. IZENPE, Euskal administrazioen identifikazio elektronikoko plataformak, bere txartel propioak

eskuratzeke aukera ematen du, eta hauek dira administrazioek eskatu ohi dituztenak, konfiantzazko zerbitzu-emaile batek ematen dituelako. Hala ere, horrelako ziurtagiririk ez duten pertsonentzat, identifikazio sistema bigunagoak ere onartzen dira, horrela izango ez balitz, pertsona horiek babesgabezia egoeran utzi eta bitarteko elektronikoen erabilera are gutxiago sustatuko litzatekeelako (Arartekoa, 2021, 33).

**h) Datu pertsonalak babestea, eta bereziki administrazio publikoen fitxategi, sistema eta aplikazioetan jasota dauden datuen segurtasuna eta konfidentzialtasuna izatea.**

EKk datu pertsonalen trataera arautzen du 18.4. artikuluan: *Legeak informatikaren erabilera mugatuko du, herritarren ohorea, eta norberaren nahiz senitartekoen bizitza pribatua, eta horien guztien eskubideen egikaritzea osoa bermatzeko.* Artikulu hau, Oinarrizko Eskubideen Europako Gutunaren 7 eta 8. artikuluekin lotuta dago.

Eskubide honek EKn duen kokapenez gain, AKk ere oinarrizko eskubide izaera hori ematen dio *“Las facultades precisas para conocer la existencia, los fines y los responsables de los ficheros automatizados dependientes de una Administración pública donde obran datos personales de un ciudadano son absolutamente necesarias para que los intereses protegidos por el art. 18 C.E., y que dan vida al derecho fundamental a la intimidad, resulten real y efectivamente protegidos.”*<sup>4</sup> Datuen babesak beraz, berekin ekartzen du herritarrek datu horien erabileraren gaineko kontrola izatea, datu horien legez kontrako trafikoa saihesteko eta haien duintasuna bermatzeko.

Horrez gain, AKren ebazpen horren boto partikularrak dio *“Se trata pues de derechos y facultades que complementan y desarrollan el derecho a la intimidad, imponiendo cargas a los poderes públicos, y en concreto a la Administración, cuya imposición necesita una regulación legal de carácter sustantivo y procesal lo que permite al art. 18.4.C.E. y sin la cual el derecho no alcanza su plena efectividad”.*<sup>5</sup> Ondorioz, bai oinarrizko eskubide izateagatik, bai AKren doktrinak eskatzeagatik eta bai pertsona fisikoen babesari, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien tratamendu askari buruzko Europar Parlamentu eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendura egokitzeko beharragatik, sortzen da estatu mailan abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan (LO) dauka oinarri juridikoa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

**i) Konstituzioak eta legeek aitortzen dizkieten gainerako eskubide guztiak.**

Azken eskubide honek, EKn eta beste legeetan herritarrei aitortzen zaizkien gainerako eskubideak barnebiltzen dira. Eskubide horien artean daude ideologia askatasuna; askatasun eta segurtasuna; giza duintasuna, ohorea eta intimitatea; komunikazio librea; adierazpen askatasuna; gai publikoetan parte hartzea; hezkuntza publiko eta doakoa; greba; jabetza pribatua; lanerakoa; Gizarte Segurantzara sarbidea eta osasunaren babeserako eskubideak, besteak beste.

39/2015 legeko 13. artikulua aurreikusten dituen eskubide orokor eta oinarrizkoen gain, lege horren 53. artikulua, beste eskubide espezifikokoago batzuk

<sup>4</sup> AKE 254/1993, 1993ko uztailaren 20koa, babes-errekurtsoa, 7. zuzenbide oinarria

<sup>5</sup> AKE 254/1993, 1993ko uztailaren 20koa, babes-errekurtsoa, boto partikularra

onartzen ditu, administrazio-prozedura jakin batean interesdun direnei soilik aplikagarri direnak. Horien artean daude interesdun diren prozeduren izapidetzea nola doan ezagutzea, prozedura izapidetzen ari den administrazio publikoetako agintariak ezagutzea, aholkulari batek lagundurik jardutea beren interesen alde egiteko komeni zaiela deritzon, eta EKK eta legeek aitortzen dizkien gainerako eskubide guztiak.

#### **4. ESKUBIDEAK BABESTEKO BIDEAK: ADMINISTRAZIOAREN ERREKURTSO SISTEMA**

Administrazio publikoaren aurrean eskubideak defendatzeko bideak, administrazioarekiko errekurtsoen sisteman eta epaile eta auzitegien kontrol-lanean oinarritzen da, hauek, administrazio publikoaren jardura kontrolatzea ahalbidetzen dute, behin egintza burutu ondoren.

Administrazio bidea prozedura eta errekurtsu ezberdinek osatzen dute eta administrazio autoritateen aurrean herritarrek eskubide eta interesak babesteko balio dute. Administrazioaren aurkako auzibidearekin alderatuta, administrazio errekurtsoen sistema hurbil eta erakargarriagoa da herritarrentzat, haren malgutasun, arintasun eta doakotasunagatik, besteak beste.

Administrazioaren errekurtsu sistema, 30/1992 legea aldatzen duen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean oinarri hartuta, 39/2015 legearen V. tituluan aurreikusten dira. Bertan, ofiziozko berrikuspenaz gain, 3 administrazio errekurtsu arautzen dira: Gora jotzeko errekurtsua, aukerako berraztertze errekurtsua eta berrikuspen errekurtsu berezia.

##### **4.1. ADMINISTRAZIO JARDUERAREN OFIZIOZKO BERRIKUSPENA**

39/2015 legearen V. tituluko 1. kapituluak zehazten ditu administrazio jardueraren ofiziozko berrikuspena, 106. artikulua du xedapen eta egintza deusezak berrikusteari buruzko erregulazioa. Bertan zehazten da administrazio publikoek noiznahi, beren ekimenez edo interesdunek eskaturik eta alde aurretik Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokideak irizpena emanik, deuseztat deklaratu ahalko dituztela ofizioz administrazio bidea amaitu duten administrazio-egintzak, 47. artikuluan jasotako kasuetan.

AGk doktrina jurisprudenzial sakona sortu du 106. artikuluan aurreikusten den ofiziozko berrikusketaren prozeduraren erregulazioaren inguruan. Oinarri hartuko duan AGren 694/2021 epaiak, hain zuzen, artikulua horren inguruko 3 zalantza argitzen ditu: Ofiziozko berrikusketaren mugen zehaztapena, ofiziozko berrikusketa oinarritzeko baliogabetze arrazoi bat ezartzearen beharra eta ofiziozko berrikuspen-eskaera zuzentzeko eta hobetzeko izapideen zehazketa.

###### **a) Ofiziozko berrikusketaren mugen zehaztapena**

Administrazioak bere egintzetako batzuk baliogabetzeko ahalmena du, baliogabetzeak hirugarrenak kaltetzen dituen arren, horregatik, zehazten den bermeetako bat, Estatu Kontseiluak edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen alde aurretiko txostena da. Horrez gain, legearen 110. artikulua,

berrikuspenari beste muga batzuk jartzen dizkio:” *Kapitulu honetan xedatutako berrikuspen-ahalmenak baliatzerik ez dago baldin eta, **akzioak preskribatu direlako, denbora igaro delako** edo **bestelako gorabeherengatik, ahalmen horiek baliatzea ekitatearen, fede onaren, partikularren eskubideen edo legeen aurkakoa bada.**”*

Artikulu honek aipatze dituen kontzeptuak oso irekiak dira, eta ez dizkiote administrazioak duen ahala horri benetako mugak jartzen, ondorioz epaileen zentzu komunari eta interpretazioari uzten zaio arau horren osaketa.

AGren 2443/2018 epaiak, estilo akademikoan kokatzen ditu ofiziozko berrikuspenaren zentzua eta mugak (Chaves García, 2023). Hain zuzen, AGk sintesi bat egiten du legegileak kanpoan utzi eta jurisprudentzia bidez zehazten diren gaien inguruan. Hasteko, esaten du igaro den denbora kontzeptuak ez duela akzio baten iraungitze, itzulketa edo mota horretako beste edozein eperekin zerikusirik, baizik eta igarotako denbora gehiegizko eta proportziogabekoa denean eta segurtasun juridikoari eta batez ere hirugarrenei kaltegarri zaienean.<sup>6</sup>

Administrazioaren ofiziozko berrikusketa, dagokion organo eskudunak zehaztu eta auzitegiak baietsi behar du, eta auzitegiari erabaki honen inguruko arrazoiketa bat egitea eskatzen zaio, 110. artikuluan aipatzen diren ekitate, fede on edo partikularren eskubideekin lotuta. Administrazio egintza bat baliogabe deklaratzear, egintza existitu izan ez balitz eta efektu juridikorik sortu izan ez balu bezala jokatu da.<sup>7</sup>

#### **b) Ofiziozko berrikusketa oinarritzeko baliogabetze arrazoia ezartzea**

Erabateko deuseztasun-kausa baten alegazio hutsak, funtsa edo arrazoirik eman gabe, ez du automatikoki ofizioz berrikusteko eskaeraren izapidetzean onartzen. Hala dio AGk 694/2021 ebazpenean honen inguruan finkatutako doktrinak: *“...que las solicitudes de revisión de oficio han de contener con claridad la invocación de una causa concreta de nulidad de las establecidas legalmente, así como los hechos en que se funda dicha causa, los fundamentos para considerar aplicable la causa de nulidad invocada y la petición concreta de iniciar el procedimiento de revisión de oficio”<sup>8</sup>.*

AGk egindako zehaztasun hauekin, beraz, argi geratzen da ofiziozko berrikusketa baten eskarian finkatuta geratu behar dela eskatzen den deuseztasuna zein egintzatan finkatzen den eta egintza horiek zein arrazoiengatik diren arau-hauste.

#### **c) Ofiziozko berrikuspen-eskaera zuzentzeko eta hobetzeko izapideak zehazketa**

---

<sup>6</sup> AGE 57/2017, 2017ko urtarrilaren 11a, kasazio-errekurtsoa, 3. zuzenbide oinarria: *“Es por ello que el lapso temporal utilizado para el ejercicio de la acción de revisión no se ha identificado con los plazos de prescripción de las acciones frente actos anulables, sino que ha recibido una interpretación mucho más restrictiva, reservándose para aquellos supuestos en los que **el plazo transcurrido resulta excesivo y desproporcionado afectando a la seguridad jurídica generada y muy especialmente cuando afecta a terceros**. Normalmente en aquellos casos en los que el lapso de tiempo transcurrido desde que se conocieron las irregularidades o vicios del acto y la actitud de pasividad mostrada desde entonces **permite entender que debe primar el principio de seguridad jurídica frente al de legalidad**, pues la equidad y buena fe hacen improcedente su revisión.”*

<sup>7</sup> AGE 57/2017, 2017ko urtarrilaren 11a, kasazio-errekurtsoa, 3. zuzenbide oinarria 2. atala

<sup>8</sup> AGE 694/2021, 2021eko otsailaren 24a, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa, 3. zuzenbide oinarria.

39/2015 legearen 68. artikulua eskera zuzendu eta hobetzearen inguruan hitz egiten du. Zehazten du, prozedura hasteko 66. eta 67. artikuluetako baldintzak bete behar direla, egin ezean, interesdunari errekerimendua egin eta 10 eguneko epea emango zaio falta zuzentzeko, bestela eskera atzera botako delarik.

Artikulu horren harira auzitegiak dio prozedura berezi batean egon arren, zehazki aurreikusia ez egoteagatik, prozedura orokorraren erregulazio aplikatuko zaiola. Hala ere, aurreikusita ez dauden kasuan, 106.3. artikulua jarraituz, posible da ofiziozko berrikuspen-eskaera atzera botatzea eskaera ez bada 41.1. artikuluko arrazoieta baten oinarritzen. AGE 694/2021 ebazpenaren atal honetatik ondorioztatzen den doktrina jurisprudenzialak hauxe dio: *"Así pues, debemos señalar que, en principio, es aplicable el trámite de subsanación de solicitudes a las peticiones de revisión de oficio, trámite que no abarca a los elementos esenciales que la norma exige para su tramitación y habilitan la inadmisión del procedimiento"*<sup>9</sup>.

## **4.2. ADMINISTRAZIO ERREKURTSOAK**

Administrazio errekurtsuak, herritar guztien eskura dauden erreklamazio bideak dira, administrazioaren erabaki bat kaltegarri zaiela uste dutenean erabil dezakete. 39/2015 legearen V. tituluko II. kapituluak, errekurtsu administratiboak eta hauek arautzen dituzten printzipio orokorrak jasotzen dira. Hain zuzen, hiru dira aurreikusten diren administrazio errekurtsuak: gora jotzeko errekurtsua, aukerako berraztertze errekurtsua eta berrikuspen errekurtsu berezia. Jarraian, administrazio errekurtsu bakoitza garatuko dugu.

### **4.2.1. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA**

Gora jotzeko errekurtsua, administrazio bidea amaitzen ez duten ebazpen eta izapide egintzen aurka jartzen da (121.1. art). Gainera, aukerako berraztertze errekurtsua bezala, ebazpen eta izapide-egintzen aurrean tarteratu ahalko da, baldin eta azken hauek gaiaren mamiaz erabakitzen badute, zuzenean ala zeharka, prozedura geldiarazten badute, defentsa-gabezia sortzen badute edo eskubide edo interes legitimoetan kalte konponezina sortzen badute (112. art.). Nolanahi ere, errekurtsu horiek 39/2015 legearen 47 eta 48. artikuluetan jasotako deuseztasun edo deuseztagarritasun arrazoieta oinarritu beharko dira.

Aurkezteko bi aukera daude, alde batetik, aurkaratzen den egintza eman zuen organoaren aurrean egitea, organo honek 10 eguneko epea izango du ebazteko eskumena duen organoari igortzeko, bere txostenarekin eta espedientearen kopia osoarekin. Beste alde batetik, zuzenean aurkaratzen den egintza egin zuen organoaren hierarkikoki gainekoa den organoaren aurrean tarteratzeko aukera dago, honek baitu berez ebazteko eskumena.

Errekurtsu hau tarteratzeko epea hilabete batekoa izango da egintza espresua den kasuetan. Epea igaro eta errekurtsorik tarteratu ez bada, ebazpena irmoa izango da ondorio guztietarako. Egintza espresua ez denean, eskatzaileak eta egon litezkeen beste

---

<sup>9</sup> AGE 694/2021, 2021eko otsailaren 24a, Administrazioarekiko Auzi Errekurtsua, 4. zuzenbide oinarria.



interesdunek, edozein momentutan tarteratu ahalko dute, administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera (122. art.). Azken aukera hori 39/2015 legeak sartutako berrikuntza bat da, administrazioaren ez egiteen edo administrazio isiltasunaren aurrean interesdunek berme gorenari izan ditzaten.

Administrazioak, errekurtsio hori izapidetu eta ebazteko 3 hilabete izango ditu; epe hori amaitu eta ebazpenik eman ez bada, errekurtsioa ezetsi egin dela uler daiteke, salbu 24.1. artikuluko 3 paragrafoan aurreikusten den kasuan: *Isiltasunak balio ezleslea izango du, orobat, egintza eta xedapenak aurkaratzeko prozeduretan eta interesdunek eskaturik hasitako ofiziosko berrikuspenari buruzkoetan. Hala ere, **gora jotzeko errekurtsioa** epea igarotzeagatik eskaera bat administrazio-isiltasunez ezetsi izanaren aurka jarria bada, baietsizat joko da ebazpen-epea heldutakoan eskumena duen administrazio-organoak ebazpen espresua eman eta jakinarazi ezean, non eta ez den zenbaki honen aurreko paragrafoan zerrendatutako gaiei buruzkoa.*

Isiltasunak balio ezleslea izatearen salbuespenaren inguruan zenbait sententzia eman ditu AGk. Eztabaida administrazioaren isiltasun bikoitzaren esanahiaren inguruan dago. Alde batek esaten du administrazioaren isiltasun bikoitzak, gora jotzeko errekurtsioaren kasuan, baietsizat hartuko litzetekeela, baina estatuko abokatuaren argudioetan 24.1. artikuluko 2. paragrafoan azaltzen den salbuespena dago: *Isiltasunak balio ezleslea izango du EKren 29. artikulua aipatzen duen eske-eskubideaz baliatzeari buruzko prozeduretan, baiestearen ondorioz eskatzaileari edo hirugarren batzuei jabari publikoaren edo zerbitzu publikoaren gaineko ahalmenak eskuratuko litzaizkiekeen prozeduretan, ingurumenari kalte egin liezaioketen jarduerak egitea dakartenetan eta administrazio publikoen ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan.*

Azkenik, 122.3. artikuluko arabera, gora jotzeko errekurtsioaren ebazpenaren aurka ezingo da beste administrazio errekurtsorik jarri, salbu eta 125.1. artikuluan ezarritako kasuetan, aurrerago aztertuko dugun berrikuspen-errekurtsio berezia.

#### **4.2.2. AUKERAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSIOA**

Aukerako berraztertze errekurtsioa, administrazio bidea agortzen duten egintzen<sup>10</sup> aurka tarteratu ahalko da. Aukerakoa dela esaten da bi aukera daudelako, ebazpena edo egintza ebatzi eman zuen organoaren aurrean tarteratzea edo zuzenean administrazioaren aurkako auzibidera jotzea.

Hala ere, 124.2. artikulua dio, ezingo dela administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri ebazpen espresua ematen den arte edo jarritako berraztertze errekurtsioaren presuntziozko ezespina gertatu arte. Beraz, eta AGren 2496/2019 epaiak azaltzen duen modura: *“La sentencia funda la inadmisibilidad del recurso en el apartado 2 del artículo 116 de la Ley 30/1992 (actual artículo 123.2 de la Ley 39/2015) y en la jurisprudencia de esta Sala del*

---

<sup>10</sup> 39/2015 legearen 114. artikulua: Administrazio bidea amaitzen duten egintzak hurrengoak dira:

- Gora jotzeko errekurtsioaren, adiskidetzaren, bitartekaritzaren eta arbitraiaren ebazpenak.
- Hierarkian goragorik ez duten administrazio-organoen ebazpenak.
- Prozedura amaitutzat jotzen duten itun edo akordioak.
- Ondare erantzukizuneko prozeduren administrazio-ebazpenak.
- Zehapen prozeduren ebazpenak.

*Tribunal Supremo (STS 4855/2010 y 2635/2011), pues cuando la parte actora interpuso el recurso contencioso-administrativo no había sido aceptado por la Administración el desistimiento del recurso de reposición formulado contra la resolución sancionadora y, estando pendiente de resolver el recurso de reposición, la recurrente no podía interponer el recurso contencioso-administrativo hasta que se hubiese resuelto expresamente el indicado recurso."<sup>11</sup>*

AGren 2496/2019 epaian aztertzen den kasu konkretuan, dena den, berraztertze errekurtsua epez kanpo aurkeztu zen eta errekurtsogileak atzera egiteko asmoa adierazi zuen. Hau kontuan hartuta, AGren doktrina jurisprudenzialak zehazten duena da, arau orokor modura ezingo dela administrazioaren aurkako auzibidera jo tarteratutako berraztertze errekurtsua ebatzita egon arte, salbu, berraztertze errekurtsu hori epez kanpo tarteratu denetan eta pertsonak atzera egiteko asmoa adierazi duenetan.<sup>12</sup>

Aukerako berraztertze errekurtsua jartzeko epea hilabete batekoa izango da egintza espresuentzako eta ez da eperik ezartzen ustezko egintzentzako, hau da, eskatzaileak edo gainerako interesdunek noiznahi tarteratu ahalko dute. Errekurtsu mota honen iraungitze epea edo ebazpena eman eta jakinarazteko epea hilabete batekoa izango da. Gainera, APELen 124.3. artikulua zehazten du berraztertze errekurtsuaren ebazpenaren aurka ezingo dela berriz berraztertze errekurtsorik jarri.

#### **4.2.3. BERRIKUSPEN ERREKURTSO BEREZIA**

Berrikuspen errekurtsu berezia, administrazio bidetik irmoak diren egintzen aurka tarteratu daiteke, eta bide honetatik egintza bat aurkaratzeko azken instantzia da, bai gora jotzeko errekurtsuena eta bai berraztertze errekurtsuena. 113. artikulua arabera, berrikuspen errekurtsu berezia tarteratu ahalko da 125. artikuluan jasotzen diren inguruabarretatik bat ematen denean:

- a) Egintzak ematean egitezko oker bat dagoenean, eta okerra espedientean erantsitako dokumentu baten ondorioa denean. Jurisprudenziak egitezko oker kontzeptu hori garatu du esanez: *"Por eso, ha de entenderse como error de hecho aquel que verse sobre un hecho, cosa o suceso, es decir, algo que se refiera a una realidad independiente de toda opinión, criterio particular o calificación, debiendo poseer las notas de ser evidente, indiscutible y manifiesto (Sentencias del Tribunal Supremo de 17 de diciembre de 1965, 5 de diciembre de 1977, 17 de junio de 1981, etc.)."*<sup>13</sup>
- b) Gaia ebazteko funtsezko balioa duen dokumentu edo agiriak agertzen direnean. Ebazpena eman ondoren agertu arren, ebazpenaren akats bat agerian uzten dutenean.

<sup>11</sup> AGE 2496/2019, 2019ko uztailaren 12a, kasazio errekurtsua, 1.C) zuzenbide oinarria.

<sup>12</sup> AGE 2496/2019, 2019ko uztailaren 12a, kasazio errekurtsua, 3. zuzenbide oinarria: *"...presentan interés casacional objetivo para la formación de la jurisprudencia, debemos declarar que puede interponerse un recurso contencioso-administrativo contra un acto administrativo, estando pendiente de resolución el recurso potestativo de reposición interpuesto contra el mismo de forma extemporánea y del que el interesado había desistido previamente, aunque no se haya esperado a la resolución sobre el desistimiento, siempre dentro del plazo de dos meses."*

<sup>13</sup> AGE 7201/2005 kasazio-errekurtsua, 2010eko urtarrilaren 28a, 2. zuzenbide oinarria

- c) Ebazpenaren erabakian dokumentu edo lekukotza faltsuek eragin izan dutenean. Faltsukeria hori, ebazpen horren aurreko zein ondorengo den epai irmo batek adierazi behar du.
- d) Prebarikazio, funtzionario-eroskeria, indarkeria, iruzurrezko azpikeria edo bestelako jokabide zigorgarri baten ondorioz emandako ebazpena denean, eta epai judizial irmo batek hala deklaritzen duenean.

Berrikuspen errekurtsu berezia, errekurtsuaren objektuaren inguruko ebazpena eman duen organo administratiboaren aurrean tarteratu beharko da. 125.a) ataleko arrazoiagatik denean, aurkaratutako ebazpena jakinarazi eta hurrengo 4 urteetan jarriko beharko da. Gainerako kasuetan, epea 3 hilabetekoa izango da, ebazpena emateko erabakigarriak diren dokumentuak ezagutzen direnetik edo delitua gertatu dela adierazten duen epai judiziala irmo geratzen denetik zenbatzen hasita.

Administrazioak, bere aldetik, 3 hilabeteko epea du berrikuspen errekurtsuari erantzuna emateko, epe hori igarota, geratzen den bide bakarra administrazioaren aurkako auzibidean errekurritzea litzateke.

#### **4.2.4. ERREKURTSOAK TARTERATZEKO BALDINTZA OROKORRAK**

Hiru administrazio errekurtsu motak aztertu ostean, horiek tarteratzeko bete behar diren baldintza orokorrekin erreferatutako diogu, errekurtsuaren edukiarekin hasita. 39/2015 legearen 115.1. artikulua zerrendatzen du ezinbesteko edukia:

- a) Errekurtsogilearen izen-abizenak eta identifikazio pertsonala.
- b) Aurkaratu nahi den egintza eta aurkatzeko arrazoia.
- c) Tokia, data eta errekurtsogilearen sinadura, jakinarazpenak jasotzeko ezarri nahi duen bidea eta, hala badagokio, tokia.
- d) Administrazioaren zein organo, zentro edo unitateri zuzentzen zaion eta horren identifikazio kodea.
- e) Xedapen espezifikoek eskatzen dituzten gainerako betekizunak.

115.2. artikulua araberak, errekurtsogileak errekurtsuari okerreko kalifikazioa ematea edo kalifikaziorik ez jartzea, oro har, ez da errekurtsua izapidetzeko oztopoa izango, betiere errekurtsuaren benetako izaera ondoriozta badaiteke. 39/2015 legeak gehitutako berrikuntza bat da, non kalifikaziorik ez jartzea kalifikazio akatsarekin parekatzen den, administrazioaren ohiko jardunean egiten den moduan. Berrikuntza hau, lanaren azken atalean azalduko dugun modura, herritarrek prozedura administratiboaren inguruan izan ohi duten ezjakintasunaren aurrean berme bat da.

39/2015 legeak administrazio errekurtsuen erregulazioaren inguruan sartutako beste berrikuntzetako bat, 116. artikuluan jasotako errekurtsuak ez onartzeko kasu orokorren zerrenda da. Arrazoi hauek jasotzen ditu:

- a) Zuzendu zaion administrazio-organoren eskumenik eza, organo eskuduna beste administrazio publiko batekoa denean. Jaso duen administrazioak, errekurtsua organo eskudunari bidali beharko dio lehenbailehen 40/2015 Sektorre Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 14.1. artikulua jarraituz eta interesdunei igorpen hau jakinarazita.

- b) Errekurtsogilearen legitimaziorik ez duenean.
- c) Errekurritu ezin den egintza bat denean.
- d) Errekurtsua jartzeko epea igaro denean.
- e) Errekurtsuak argi eta garbi oinarririk ez duenean.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, ez onartzeko arrazoiak modu zorrotzean interpretatu behar direla zehaztu zuen, batez ere, oinarririk ezari dagokiona, bide hori errekurtsua alde zuzenetik ezesteko formula gisa erabili ez dadin (Pozo Bouzas, 2016). Interpretazio zorrotzaz gain, administrazio errekurtsu bat oinarririk ez izateagatik ezetzteak, nahitaez dakar balorazio edo hautemate juridikoa egin behar izatea, gero hori auzibidean eztabaidagarri izan dadin.

## **5. ESKUBIDEAK BABESTEKO BIDEAK: ADMINISTRAZIO EGINTZEN KONTROL JUDIZIALA**

Administrazioaren kontrol judizialerako sistema bat ezartzea ezinbestekoa zuzenbideko estatu batean. EKK zehazten du herritarrak eta botere publikoak Konstituzioaren eta ordenamendu juridikoaren mende daudela (EK 9.1 art.), legezatasun eta segurtasun juridikoaren printzipioak bermatzen direla (EK 9.3 art.), eta administrazioak, zehazki, legeari eta zuzenbideari men egiten diela (EK 103.1 art). administrazio-egintzen legezatasunaren berriuspen judiziala lortzeko eta administrazioaren erabakien kontrol independentea bermatzeko, beharrezkoa da, beraz, epaitegiei eta auzitegiei jurisdikzio-ahala eskusiboki baliatzeko bide ematea (EK 117.3 art.), administrazio publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek beren jardunean ordenamendu juridikoa errespetatu duten ala ez erabakitzeke ahalmena izan dezaten.

Konstituzioak babes maila gorenarekin aldarrikatzen du benetako babes judizialaren eskubidea (EK 24.1. art.), eta 106.1. artikuluan zehazten da Auzitegiei ematen zaiela administrazioen arauzko ahalmena, administrazio ekintzen legezatasuna eta haien helburuetara egokitzen direla kontrolatzeko ahalmena (Huergo Lora, 2023).

Administrazio egintzen kontrol judiziala, ondoren aztertuko ditugun bi bideren bidez bideratzen da. Alde batetik, administrazioarekiko auzi errekurtsoen bidez, eta beste alde batetik, jurisdikzio arrunteko errekurtsoen gain, era subsidiarioan oinarrizko eskubide eta askatasunak bermatzeko, Auzitegi Konstituzionalaren (AK) aurreko babes-errekurtsuaren bidez.

### **5.1. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOAK**

Administrazioarekiko auzi errekurtsuok, Administrazio Publikoen egintzen eta xedapenen legezatasuna kontrolatzeaz gain, administrazioaren eta herritarren arteko gatazkak ebazteko mekanismo judizial arrunta zehazten dute. Hala, errekurtsu horien bidez, herritarrek haien oinarrizko eskubideak babestea eskatu, administrazio egintza eta erregelamenduak aurkaratu eta Administrazioak eragindako kalteengatik ordaina eska dezakete. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren nondik norakoak 29/1998 legeak erregulatzen ditu. Legearen 25. artikuluan arabera, administrazioarekiko

auzi-errekurtsoa tartera daiteke xedapen orokorren eta administrazio-bidea agortzen duten Administrazio publikoaren berariazko zein ustezko egintzen aurrean. Egintza horiek behin-betikoak zein izapidezkoak izan daitezke, betiere azken horiek gaiaren mamiaz erabakitzen badute, zuzenean ala zeharka, prozedura geldiarazten badute, defentsa-gabezia sortzen badute edo eskubide edo interes legitimoetan kalte konponezina sortzen badute.

Pertsona fisiko eta juridiko orok du errekurtsu hori tarteratzeko ahala, errekurritu nahi den egintza jakinarazi edo publikatu den egunetik 60 egunetan. Isiltasun administratibo baten ondoriozkoa bada, isiltasuna sortu zenetik 6 hilabeteko epea izango dute errekurtsu tarteratzeko (46.1. art.). Legegileak epe zehatz hori ezarri arren, administrazio isiltasunaren kasuan, AKren doktrinaren arabera, presuntzioko ezespren horiek inolako eperik kontuan hartu gabe aurkaratu daitezke. Hau da, ikuspuntu hertsiki prozesal batetik, ezingo da auzi-errekurtsoa ezeztatu epez kanpo dagoelako, Administrazioak berak duen ebazteko betebeharra bete ez badu (Górriz Gómez, 2009). Horrek esan nahi du, beraz, praktikan, 46.1. artikuluan aurreikusitako epea ez dela aplikatuko administrazio isiltasunez presuntziorako ezesprenen kasuetan.

Herritarrak jurisdikziora jotzeko duen eskubidea bermatzeari dagokionez, interpretazio horrekin, nabarmen murrizten da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartezina dela adierazten duten deklarazio judiziala egoteko aukera. AKren 6/1986 Ebazpenak ere hala adierazten du; *“...no puede calificarse de razonable -y menos aún de interpretación más favorable a la efectividad del derecho fundamental- una interpretación que computa el plazo para recurrir contra la desestimación presunta del recurso de reposición como si se hubiera producido una resolución expresa notificada con todos los requisitos legales.”*<sup>14</sup>

Errekurtsoaren edukiari dagokionez, herritarrak idazki batean jaso behar ditu bere datu pertsonalak; zein entitateren aurrean errekurritu nahi duen; erreklamatu nahi duen egintza, erabaki edo ez egitea; erreklamazioa aurkezteko arrazoiak eta abokatuaren sinadura. Errekurtsoa Justizia Auzitegi Nagusi bati, Auzitegi Gorenari edo Auzitegi Nazionalari zuzentzen bazaio, abokatuaren sinaduraz gain, prokuradorearen sinadura ere agertu behar da (23.1 eta 2. art.). Gainera, idazkiari erantsi behar zaizkio errekurritu nahi den ebazpenari buruzko dokumentazioa, bai eta erreklamazioa oinarritzeko balio duen beste edozein dokumentu ere.

Idazkia, dokumentu-eranskinarekin batera, dagokion tokiko administrazioarekiko auzien auzitegi espezializatuan aurkeztuko da. Era berean, errekurtsu Auzitegi Nazionalako, Justizia Auzitegi Nagusietako edo Auzitegi Goreneko saletan ere aurkez daiteke. Kasu horietan, abokatu eta prokuradorearen laguntza izatea eskatzen da.

Oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen jurisdikzio babesean, ordenamendu juridikoak bi errekurtsu mota aurreikusen ditu. Alde batetik, jurisdikzio arrunteko babes-errekurtsoa, “babes-judizial” edo “ohiko babes” izena hartzen duena. Hau, 29/1998 Lege Organikoaren 114. artikuluan arautzen da, eta EKren 53.2. artikuluan aurreikusitako eskubideak babesteko lehentasunezko prozedura sumarioa da. Beste alde batetik, oinarrizko eskubide eta askatasuna babesteko AKren aurreko babes-errekurtsoa

---

<sup>14</sup> AKE 6/1986 1986ko otsailaren 12a, 3. zuzenbide oinarria

edo “konstituzio-babesa” dago, zeina 53.2. artikuluan aldarrikatzeaz gain, EKren 161.1.b) atalean ere azaltzen den (Aragón Reyes, 1987). Ordenamendu juridikoan, Auzitegi arruntak dira eskubide eta askatasunen lehen bermatzaileak, eta AKren babesa beti subsidiarioa izango da.

## 5.2. AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN AURREKO BABES-ERREKURTSOA

AKren aurreko babes-errekurtsoa aurkezteak, aukera ematen dio herritarrari Estatuko, autonomia-erkidegoetako edo tokiko beste botere publiko baten xedapen, egintza, erabaki, ebazpen, egite edo ez-egiteek eragindako oinarrizko eskubideen eta askatasun publikoen urraketaren aurrean erreakzionatzeko. AKren aurreko babes-errekurtsoak, oinarrizko eskubide eta askatasun horien babesa egikaritzen du, baina era subsidiarioan, botere judizialek edo administrazioarengandik eratorritako urraketa denean, izan ere, kasu horietan aurretiaz bide judiziala agortu eta urraketaren berri eman behar da gertatu bezain laster.

AKren aurreko babes-errekurtsoari izaera subsidiarioa emanez epaitegi arruntei urraketaren berri izan eta aldeztatik konpontzeko aukera ematen zaie (Espinosa Díaz, 2010). Jurisprudentziak ere hala zehaztu du: *“la finalidad esencial del recurso de amparo es la protección, en sede constitucional, de los derechos y libertades que hemos dicho, cuando las vías ordinarias de protección han resultado insatisfactorias”*<sup>15</sup>. Errekurtsu horren bidez babesten diren oinarrizko eskubide eta askatasunak EKren 14-29. artikuluen artekoak eta EKren 30.2. artikuluan jasotakoak dira, eta eska daitekeena, eskubide eta askatasun hauekiko lesio zehatz eta eraginkor bategatik babestea edo eskubide horren berrezartzea da. Hau da, eskubide eta askatasunak urratu diren ala ez aztertzea mugatzen da, jurisdikzio arruntari dagokiolako legezketasuna kontrolatzea (Ridaura Martínez, 2017).

2/1979 LOak arautzen du babes-errekurtsoa, lege hori, 6/2007 LOak moldatu zuen, batez ere, babes-errekurtsoak AKn eragindako saturazioa murrizteko asmoarekin. Izan ere, KAK jasotako errekurtsoak izapidetzan onartzeko ala ez onartzeko zereginak, Auzitegiaren gainerako funtzioetan eragiten zuen, konstituzioz kontraketasuneko zenbait errekurtsotan 10 urterainoko atzerapenak eraginez (Espinosa Díaz, 2010).

2/1979 LOak, hiru babes-errekurtsu mota bereizten ditu, oinarrizko eskubideen urraketa egozten zaion botere publikoaren egintzaren jatorriaren arabera; parlamentuaren erabakien aurkakoa, erabaki judizialen aurkakoa eta guri bereziki interesatzen zaiguna, gobernuaren eta administrazioaren erabakien aurkako babes-errekurtsoa, legearen 43. artikuluan arautzen dena. 43.3. artikulua jasotzen duen moduan, errekurtsoa soilik tarteratu ahalko da babespean dauden oinarrizko eskubide eta askatasunak urratzen dituen ebazpen irmo baten aurka.

Lehen azaldu bezala, 6/2007 LOak egindako lehen berrikuntzak babes-errekurtsoa onartzeko izapideari eragiten dio, izan ere, moldaketaz geroztik, babes-errekurtsoarean modalitate guztietan, ezinbesteko baldintza da demandatzaileak prozedura hasteko demandan errekurtsoarean garrantzia konstituzional berezia justifikatzea (49.1. art. eta 50.1b). art.). KAK bere web orrian babes-errekurtsoarean inguruan duen artikulua

<sup>15</sup> AKE 1/1981, 1981eko urtarrilaren 26koa, 2. zuzenbide oinarria

arabera, baldintza hori ezin da nahasi salatutako konstituzio-lesioaren oinarriarekin; hau da, errekurtsuaren garrantzia konstituzional berezia justifikatzean, ez da arrazoitu behar aurkaratutako egintzak edo erabakiak oinarritzko eskubide bat urratu duela.<sup>16</sup>

Garrantzia konstituzional bereziaren baldintza gehitu zen, AKren eraginkortasuna areagotzeko, baina horrek herritarrek tarteratutako babes-errekurtsu askoren onartezintasuna ekartzen du, hain zuzen, babes-errekurtsuen %73 baino gehiagorena (Sevilla Duro, 2023). Izan ere, Auzitegiak ez badu gaiaren garrantzia konstituzional berezia ikusten, hau da, eskatutako babesaren proiektio objektiboa justifikatzen ez bada, elementu subjektiboa, hots, lesionatutako oinarritzko eskubidea, guztiz desagertzen da, lesio hori egiaztatzen duten frogak badaude ere (Fernández, 2024).

EKren 50.1.b). artikulua dio, garrantzia konstituzional berezia erabaki horrek Konstituzioa interpretatzeko, aplikatzeko edo, oro har eraginkorra izateko eta oinarritzko eskubideen edukia eta irismena zehazteko duen balioaren arabera baloratuko dela. Hala ere, jurisdikzioaren jardunaren izaera dinamikoa kontuan hartuta<sup>17</sup>, garrantzia konstituzional berezia ezartzeak nolabaiteko arbitrariotasuna eta herritarrarenganako babesgabezia eragiten du. AKren 155/2009 ebazpena, garrantzia konstituzional bereziaren izaera zehazten saiatzen da, esanez, errekurtsua onartu eta auziaren edukiaren inguruan erabaki behar dela justifikatzen duten zenbait kasu daudela.<sup>18</sup>

Fernán데zen (2024) aburuz, planteamendu honek konstituzionaltasun zalantzak sortzen ditu, babes-errekurtsua ez zelako jurisdikzio konstituzionalean sartu garrantzia berezia izan zezakeelako jurisdikzio konstituzioaren interpretazio, aplikazio edo eraginkortasun orokorrerako, baizik eta Konstituzioak aitortzen dituen oinarritzko eskubideei babes indartua emateko (EK 53.2. art.). Oinarritzko eskubide eta askatasun horiekiko babes desagertzen bada, eta ez bada eskubide eta askatasunen urraketaren oinarria kontuan hartzen soilik AKk garrantzia konstituzional berezirik ez duela kontsideratzen duelako, horrek, EKren 53.2. artikulua urraketa garbia suposatuko luke. Izan ere, ez da bidezkoa herritarrarentzat planteatzen duen auziaren inguruko doktrina jada eratuta egote hutsagatik bere babes-errekurtsua alde batera uztea.

Dena dela, hori da egun, legegileak egiten duen planteamendua, beraz, AKren aurrean prozedura hori hasteko demandak, auziak duen garrantzia konstituzional berezia jaso behar du. Horrez gain, argi jaso behar dira errekurtsuaren oinarri diren egitateak, hautsitako konstituzio aginduak, eta zehatz-mehatz finkatu behar da urratutzat jotzen den eskubidea edo askatasuna babesteko edo berrezartzeko eskatzen den babes (49.1.

---

<sup>16</sup> KAren web orria:

<https://www.tribunalconstitucional.es/es/tribunal/Composicion-Organizacion/competencias/paginas/04-recurso-de-amparo.aspx>

<sup>17</sup> AKE 155/2009, 2009ko ekainaren 25a, 2. oinarri juridikoa, 5. paragrafoa: “... sin que la relación que se efectúa pueda ser entendida como un elenco definitivamente cerrado de casos en los que un recurso de amparo tiene especial trascendencia constitucional, pues a tal entendimiento se opone, lógicamente, el carácter dinámico del ejercicio de nuestra jurisdicción, en cuyo desempeño no puede descartarse a partir de la casuística que se presente la necesidad de perfilar o depurar conceptos, redefinir supuestos contemplados, añadir otros nuevos o excluir alguno inicialmente incluido

<sup>18</sup> AKE 155/2009, 2009ko ekainaren 25a, 2. oinarri juridikoaren 6. paragrafoak zehazten ditu kasu hauek, zazpi jasotzen ditu, baina zerrenda hau *numerus apertus* da, hau da, zerrenda irekia da, etorkizunean kasu gehiago sartzea onartzen duena.

art.). Babes-errekurtsoa AKren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar da, prokuradore, abokatu eta eskatzailearen datuak zehaztu ostean, dokumentazio zehatza eranstea eskatzen da.

Hasteko, demandaren laburpena jasotzen duen eranskin bat, zeinetan errekurtsogilea, errekurritu nahi den ebazpena eta dagokionean, martxan jarri nahi diren behin-behineko neurriak zehaztu ostean, hiru atal bete behar diren: Alegatutako konstituzio urraketen azalpen laburra, errekurtsuaren garrantzia konstituzional berezia eta aurretiaz bide judiziala agortu izanaren justifikazioa. Laburpen horren bidez Auzitegiak alde batera utzi ahalko du demanda konstituzio kalterik ez dagoenean, garrantzia konstituzional berezirik ez dagoenean edo aldez-aurretik bide judiziala agortu ez denean. Ondoren, demandaren idazkia bera atxiki behar da, eta horrekin batera, beste zenbait dokumentu ere: prokuradorearen ahalordetzea, aurkaratutako ebazpenak, prozesuan urraketa egon bezain laster salatu zenaren egiaztagiria, aurretiaz bide judiziala agortu denaren frogagiria, errekurtsua tarteratzeko epearen barruan daudenaren frogagiria eta eskatzaileak egoki dagozkion bestelako dokumentuak.<sup>19</sup>

Dokumentu horiek, lehen azaldu moduan, AKaren egoitza elektronikoan aurkeztuko dira, legez ezarritako epean, baita KAREN erregistroan edo edozein herritako auzitegi zibilen erregistro zentralako bulegoetan, babes-errekurtsoa aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egun baliouduneko 15:00ak arte (85. art.). Babes-errekurtsoa tarteratzeko epeak ezberdinak dira aurkaratzen den egintzaren arabera, ebazpen edo egintza administratiboaren aurkakoak 20 eguneko epean aurkeztu behar dira (43.2. art.). Epea, ebazpena jakinarazi den egunaren hurrengotik zenbatzen hasiko da.

Babes-errekurtsoa tarteratzeko legitimazioa izango du oinarrizko eskubide edo askatasun publiko baten titularra denak edo dagokion prozesu judizialean alderdi izan denak, betiere eztabaidatutako auzian interes legitimoa argudiatu ahal bada. KAREN babesera jotzeko akzioa guztiz pertsonala da, eta horrek eragotzi egiten du titularra ez den beste pertsona batek egikaritzea, ordezkaritza-kasuetan izan ezik. Hala ere, ezinbestekoa da abokatu eta prokuradorearen laguntza jasotzea errekurtsu hau egoki formulatua egon dadin (81. art.).

Herritarren oinarrizko eskubide eta askatasunen defentsa bermatzeko, konstituzio instantziara jotzeko prozedura doakoa da, baliabide nahikorik ez izatea oztopoa ez izateko. Doakotasun horrek, dena den, ez du barne hartzen abokatu eta prokuradoreen zerbitzu sariak, baina kuota horiek ordaintzeko ere baliabide nahikorik ez duten pertsonen doako laguntza juridikorako eskubidea izango dute. Auzitegiak babes-prozesuaren izapidetzetik eratorritako kostuak ezarri ahal izango dizkie oinarririk gabeko jarrerak edo ausarkeriaz edo fede txarrez egon direnei (95. art.).

Herritarrek administrazio publikoen aurrean dituzten arazoak konpontzeko duten azken bidea aztertu aurretik, aurretiazko erreklamazioen eta administrazio bidea agortu behar diren inguruan doktrina mailan egondako eztabaida aztertuko dugu.

---

<sup>19</sup> Tribunal Constitucional. Secretaría General. Guía para la presentación de las demandas de amparo.



## 6. AURRETIAZKO ERREKLAMAZIOAK ETA ADMINISTRAZIO BIDEA AGORTU BEHARRA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen 39/2015 legeak, bide judizial zibilera eta lan-azuzibidera joateko aurretiazko erreklamazioak ezabatu zituen, herritarren eskubideak bermatzeko karga bat suposatzen zutelako. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) justifikazio bikoitza eman zion aurretiazko erreklamazio horien eskakizuna kentzeari. Alde batetik, arlo zibilean eta lan-arloan erreklamazioa aurkeztearen baldintza jada malgua zela esanez, izan ere, erreklamazio hori ez aurkeztea edo behar bezala aurkeztuta ez egotea akats konpongarriztat hartzen zen. Beste alde batetik, doktrinaren gehiengoak zioen betekizun hori Administrazioaren pribilegio bat zela (Pozo Bouzas, 2016). Administrazioarentzako pribilegio bat kontsideratzen zen, egiten ziren erreklamazio gehienak ezetsi egiten zirelako, askotan isiltasun bidez ere, eta hori ez zectorren bat administrazio publikoaren eginkizunekin. Horregatik, 39/2015 legearen aurreproiektua baloratzean, BJKNk positiboki baloratu zuen betekizun hori kentzea.

Hala ere, Estatuko Kontseiluak iritzi zorrotzagoa izan zuen baldintza hau kentzearen inguruan. Haien aburuz, erreklamazio horiek prebentzio-mekanismo modura funtzionatzen zuten, prozesu judiziala eragozteko, aurretiazko adiskidetze ekitaldiaren antzera. Beraz, aurretiazko erreklamazioak kentzeak, nahitaez bide judizialera jotzeko beharrezkotasuna ezarriko luke, horrek dakartzan kostuak barne. Horregatik, Estatuko Kontseiluak erreklamazio horiek mantentzea proposatu zuen, hautazko izaeraz bada ere.

Baldintza hori kentzeak, Estatuko Kontseiluak eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak adierazi zuten modura, legeria prozesal zibilaren eta lan arloko legeriaren moldaketa eragin zuen, eta hala egin zuen 39/2015 legearen 3. amaierako xedapenak. Xedapen horrek, lan arloko jurisdikzioa arautzen duen 36/2011 legea moldatu eta 39/2015 legearen 64, 69, 70, 72, 73, 85, 103 eta 117. artikuluen berridazketa suposatu zuen. Berridazketa horrek, aurretiazko erreklamazioaren betekizuna kendu, eta administrazio bidea agortzearen betekizuna ezarri zuen.

Bide judizialera jo aurretik administrazioarekiko errekurtsoen bidez bide administratiboa agortzeko baldintza, 39/2015 legearen 69. 1. artikuluan<sup>20</sup> jasotzen da. Horren arabera, administrazioak interesatuei jakinarazi behar dizkie haien eskubide eta interesak eragiten dituzten ebazpen eta administrazio egintzak. Jakinarazpen horretan, ebazpen osoa jasotzeaz gain, argi azaldu behar da ebazpen horrek administrazio bidea agortzen duen ala ez, haren kontra zein errekurtsu jar daitezkeen, zer organoren aurrean aurkeztu behar diren eta zein epetan. Artikulu hau, 39/2015 legearen 21.1 artikuluekin

---

<sup>20</sup> Artículo 69. Agotamiento de la vía administrativa previa a la vía judicial social.

1. Para poder demandar al Estado, Comunidades Autónomas, entidades locales o entidades de Derecho público con personalidad jurídica propia vinculadas o dependientes de los mismos será requisito necesario haber agotado la vía administrativa, cuando así proceda, de acuerdo con lo establecido en la normativa de procedimiento administrativo aplicable.

En todo caso, la Administración pública deberá notificar a los interesados las resoluciones y actos administrativos que afecten a sus derechos e intereses, conteniendo la notificación el texto íntegro de la resolución, con indicación de si es o no definitivo en la vía administrativa, la expresión de los recursos que procedan, órgano ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar, en su caso, cualquier otro que estimen procedente. (...)

lotzen da, horrek esaten baitu administrazioak esabidezko ebazpena eman eta jakinarazi behar duela prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.

Horren harira, AGren, 799/2023 epaiak, doktrina jurisprudenziala ezartzen du, zehaztuz ez dela bidezkoa administrazioarekiko auzi-errekurtso baten onartezintasuna eskatzea administrazioak ez badu behar bezala jakinarazten errekurritu nahi den ukapenaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak. Administrazioaren isiltasunaren ondorioa negatiboa den arren, beharrezkoa da administrazioak ebazpen espresua eman eta jakinaraztea, ebazpenik ez eman eta administrazio bidea agortu ez izanagatik errekurtsio baten ukapena eskatzea administrazio onaren printzipioaren aurkako jarrera litzateke eta. Hala dio AGk beste sententzia honetan ere: *“El incumplimiento del deber de la Administración de resolver en plazo las solicitudes de los interesados no puede suponer un perjuicio para éstos, y la desestimación por silencio es equivalente a una notificación defectuosa en cuanto omite la indicación al interesado de los recursos procedentes contra la resolución. Son estas infracciones, sólo atribuibles a la actuación administrativa, las que han inducido al administrado a eludir la vía impugnatoria admitidas en la ley, por lo que es improsperable fundar ahora su defensa en la falta de utilización de este medio. Tal es el tenor de la jurisprudencia, contenida en las SSTs de 30-6-1999 , 15-2-2000 , 17-6-2002 , 6-11-2002 y otras.”<sup>21</sup>*

39/2015 legearen 70. artikulua, administrazio bidea agortzeko baldintzaren salbuespenak jasotzen ditu, salbuespen horren pean daude Administrazio publikoek lan eta sindikatu arloan emandako egintzen aurka oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen babes demandak.

39/2015 legean administrazioarekiko auzibidera joan aurretik administrazio bidea agortu beharraren baldintza hau gehitzearen inguruan iritzi kontrajarriak egon dira doktrinan. Batez ere sistema horren eraginkortasunaren eta benetako helburuen inguruan.

Doktrinaren alde batek dio, administrazio bidea agortzeko beharrak bide administratiboaren benetako eraginkortasun eza agerian uzten duela. Bide administratiboa benetan eraginkorra izango balitz, ez litzatekeelako hau agortzeko derrigortasuna ezarri beharko. Errekurtso-administratiboak berme gisa duen baliagarritasun guztia galdu eta herritarrentzat beste karga edo oztopo bat besterik ez da bihurtzen. Izan ere, errealitatean, administrazio bidea agortu behar izateak ez du Administrazioak bere erabakien ontasunari buruz hausnartzeko bigarren aukera bat irekitzen, eta ez dio partikularrari prozesuaren karga saihesteko itxaropenik ematen (Fernández Rodríguez, 1990). Gainera, errekurtsioak tarteratzeko epeen eta administrazio isiltasunaren epeen artean, herritarrak auzitegietara jotzeko duen denbora oso baliagarria galtzen da.

EKren 24.1. artikulua, pertsona guztiek beraiei dagozkien eskubide eta interes legitimoak egikaritzeko epaile eta auzitegien babes eraginkorra jasotzeko oinarrizko eskubidea jasotzen du, eta doktrinaren zati honen arabera, justiziara jo aurretik jarritako baldintza honek oinarrizko eskubidea mugatzen du. Argudiatzen dute, oinarrizko eskubide baten mugaketa konstituzionala izan dadin, helburu legitimoa izan behar duela, eta ondorio proportzionalak izan behar dituela.

---

<sup>21</sup> AKE 9273/2011, 2011ko azaroaren 2a, 2. zuzenbide oinarria, 3. paragrafoa

Ondorioen proportzionaltasunaren gaiari ez zaio arreta gehiegi eskaini jurisprudentziaren aldetik, ziurrenik bi inguruabar hauengatik. Alde batetik, justiziara iristeko administrazio bidea nahitaez agortu beharraren larritasuna erlatibizatzen saiatu dira, esanez horrek ez duela justiziarako sarbidea ezabatzen, atzeratu baizik. Beste alde batetik, baldintza prozesal horren ondorioak arintzeko elementuak bilatzen ibili dira, esanez organo judizialek, administrazio-bidea ez agortzeagatik errekurtsu bat ukatu aurretik, haztapan bat egin behar dutela (Cicero Seira, 2016). Haztapan honetan, AKK kontuan izan behar du: “(a) la entidad del defecto procesal cometido; (b) la incidencia de dicho defecto en la consecución de la finalidad perseguida por la norma infringida; (c) la trascendencia del incumplimiento procesal para las garantías de las demás partes en el proceso; (d) la voluntad y grado de diligencia procesal apreciada en la parte; y, en fin, (e) el tiempo transcurrido desde que se interpuso el recurso en la vía judicial hasta que resulta finalmente inadmitido a trámite.”<sup>22</sup> Administrazio bidea ez agortzeagatik errekurtsuak ezezten jarraitzen diren arren, haztapan horiek zehazteak malgutasun gehiago eskaintzen die hiritarrei, kasuaren inguruabarren azterketa sakonagoa egiten da eta.

Haztapan horiei lotuta, AGren 815/2018 sententziak dio; “*Por consiguiente, si para el ejercicio de la acción jurisdiccional frente a una Administración pública se exigiera a los ciudadanos la interposición de un recurso administrativo que se revelara manifiestamente ineficaz para el éxito de su pretensión, cabría concluir, en la medida en que la formulación del recurso se erigiría en una carga procesal para el demandante como presupuesto de viabilidad de su acción jurisdiccional [SSTC 108/2000 (ES:TC:2000:108; FJ 4º), 275/2005 (ES:TC:2005:275; FJ 4º) y 75/2008 (ES:TC :2008:75; FJ 4º)], que esa carga, en cuanto inútil, negaría la razón que justifica su imposición, deviniendo desproporcionada y vulneradora del derecho a obtener la tutela judicial efectiva, al tiempo que desconocería el mandato del artículo 106.1 CE, que impone un efectivo control jurisdiccional de la actuación administrativa*”<sup>23</sup>. Beraz, zenbait kasutan administrazio errekurtsua tarteratzeak auzia ebazteko balio ez duela ikusten bada, ezingo da administrazioarekiko auzibidean tarteratutako errekurtsuaren ukapen zuzena ezarri, ondorioa proportziogabea litzatekeelako.

Derrigorrezko administrazio errekurtsu bat benetan proportzionala izateko, beharrezkoa izango litzateke horrek sortarazten dituen desorekak zuzentzea. Bide administratiboa agortzearen betebeharrak justiziara beranduago iristea eragiten baitu, eta askotan, egintza gauzatuta egoten da ordurako. Izan ere, gerta liteke administrazioaren aurkako auzi errekurtsuak forma hartzen duenerako errealitatea aldatu eta egindako egintza guztiak moldatu behar izatea.

Egun, baldintza prozesal hori ez betetzearen ondorio nagusia, auzitegietara jotzeko eskubidearen ukatzea da, izan ere, administrazioaren aurkako auzi errekurtsua soilik da onargarria administrazio bidea amaitzen duten egintzen aurka. Hala azaltzen du 29/1998 legearen, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren nondik norakoak erregulatzen dituen legearen, 25.1. artikulua: “*El recurso contencioso-administrativo es admisible en relación con las disposiciones de carácter general y con los actos expresos y presuntos de la Administración pública que pongan fin a la vía administrativa, ya sean definitivos o de trámite, si estos últimos deciden directa o indirectamente el fondo del asunto, determinan la*

---

<sup>22</sup> AKE 275/2005, 2005eko abenduaren 13a, Roberto García-Calvo y Montiel magistratuak emandako boto partikularra, 5704-2000 babes-errekurtsuan emandako epaiari buruzkoa.

<sup>23</sup> AGE 815/2018, 2018ko maiatzaren 21a, 3. oinarri juridikoa.

*imposibilidad de continuar el procedimiento, producen indefensión o perjuicio irreparable a derechos o intereses legítimos.”*

29/1998 legearen 51.1. artikulua arabera, epaitegiak administrazio-espeditzea aztertu ondoren, errekurtsua onartzen ez dela adieraziko du epaitegi edo auzitegiaren jurisdikzio edo eskumenik ez duenean, errekurtsogilearen legitimaziorik ez duenean, aurkaratu ezin den jardueraren aurka jarritako errekurtsua bada eta errekurtsua jartzeko epea iraungi bada. Horrez gain, 69. artikulua ere bestelako arrazoi batzuk ere jasotzen ditu.

Doktrinaren zati horren xedea da administrazio bidea agortu ez izanaren ondorioak leuntzea, tribunaletarako sarbidea ukatu beharrean. Horrela, auzibideak aurrera jarraitzea ekidin ez duen aldeari epaiketaren kostuak egozteak proposatzen dute. Administrazio-bidea agortzen ez bada prosezuko kostuak ordaintzera kondenatzeak jendea administrazio bidea agortzera bultzatuko luke, baina jurisdikzio-organoak eztabaida ebazteko funtsari buruzko iritzia emateko aukera itxi gabe (Cicero Seira, 2016).

Doktrinaren beste zatiaren arabera, aurretiaz administrazio bidea agortzeko baldintzak zenbait helburu betetzen ditu. Alde batetik, gatazkari auzitegiez kanpoko irtenbide bat lortzen saiatu nahi da, Justizia Administrazioarentzat eta gatazkan dauden alderdientzat emaitza eraginkorragoa izateko (Sánchez Pérez, 2018). Auzia epaitegietatik kanpo erabakitzeak zenbait abantaila dakartza, batez ere epaitegien funtzionamenduari dagokionez, izan ere, administrazio-mailan ebatz daitezkeen kasuak aurrez ebatziz, esku-hartze judiziala benetan beharrezkoak diren gaietarako utzi, eta horrek justizia eraginkorragoa eta epaitegien lan karga gutxitzea lortzen laguntzen du.

Horrez gain, administrazio publikoen autonomia babesten da, eta aukera ematen zaio bere akatsak zuzentzeko. Izan ere, administrazio-bidea agortzearen baldintza horren bidez, administrazioak aldeazurretik izango du auziaren berri, prozesua saihestuko duen borondate-deklarazio bat ahalbidetuz, eta administrazio demandatuari haren oposizioa behar bezala prestatzeko aukera emanaz (Blasco Pellicer, 2016). Doktrinaren alde horrek dio herritarren interesen defentsa osoago eta zehatzagoa egiten dela horrela, aukera ematen baitu administrazioaren barruan berrikuspen sakona egiteko eta gai garrantzitsu guztiak behar bezala aztertzeko.

Gainera, subsidiotasunaren printzipioa errespetatzeko helburua ere gailentzen da, hau da, auzia gobernu edo autoritateen ahalik eta maila baxuenean ebazten saiatzea, kasu honetan, administrazioak ebaztea epaitegietara iritsi aurretik.

Doktrinaren bigarren zati horren eta legegilearen erabakiak errespetatuz, garrantzitsua iruditzen zait honen inguruko hausnarketa egitea. Administrazio bidea agortzeko baldintzak, kasu askotan, alferrikako atzerapen eta konplikazioak eragiten ditu, bereziki administrazioak eraginkortasun gabe eta arbitrarioki jarduten duenean. Administrazio bidea agortzeko baldintza eraginkorra eta bidezkoa izan dadin, beharrezkoa da administrazio-prozedurak eraberritu eta hobetzea, errekurtsoen ebazpenean gardentasuna, azkartasuna eta justizia bermatzeko. Gainera, baldintza horrentzat salbuespenak aurreikusi beharko liriateke, batez ere egoeraren larritasunak, presak, administrazioaren arbitrariotasun argiak edo eraginkortasun ezak zuzeneko

esku-hartze judiziala justifikatuko lukeen kasuetan. Administrazioaren eta herritarren arteko gatazketan funtsezkoena, herritarren oinarrizko eskubide eta askatasunen babesa da, eta legegileak, eskubide eta askatasun horiek bermatzen dituen sistema bat sortu beharko luke, herritarrei ahalik eta oztopo gutxien jartzen dizkiona, eta herritarrek babesgabezia egoeran uzten ez dituen.

## 7. HERRIAREN DEFENDATZAILEA ETA ARARTEKOA

Herriaren Defendatzailearen eta Arartekoaren figurak, herritarrek administrazio publikoaren aurrean dituzten arazoak eta kexak konpontzeko sortutako bi figura dira. Herriaren Defendatzailea, espainiar administrazio publiko batek eragindako eskubideen urraketak salatzeko dago, eta Arartekoak, funtsean, funtzio bera betetzen du, baina eskubideen urraketa EAEko administrazio publikoetako batek eragindakoa denean.

Jarraian, figura hauen sorrera eta funtzionamendu orokorra garatuko dugu marko juridikoan. Ondoren, Euskal herritarrek, gehienbat EAEko administrazio publikoekin harremanetan egoten direnez, Arartekoaren figura izango dugu ardatz, eta figura horren aurrean kexak aurkezteko bideak eta bete beharreko baldintzak azalduko ditugu, 2023an zehar Arartekoak izandako jarduera eta ekitaldien laburpen orokor bat egitearekin batera.

### 7.1. MARKO JURIDIKO OROKORRA

1978ko Espainiar Konstituzioak lehen aldiz barneratu zuen Herriaren Defendatzailearen figura, 54. artikuluan, oinarrizko askatasun eta eskubideen bermeak jasotzen diren atalean. Era berean, atal honek zehazten du botere publiko guztiak EKren 14. artikuluan aipatzen diren eskubide eta askatasun horiei lotuak daudela, eta beraz, herritar orok duela hauen betetzea eskatzeko ahalmena, bai Auzitegi arrunten aurrean bai AKaren aurrean, babes-errekurtsoaren bidez.

EKren 54. artikuluan aipatzen den lege organikoa, Herriaren Defendatzailearen apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoa da, bertan erregulatzen da besteak beste Herriaren Defendatzailearen izaera eta izendapena, ordezkapena, bateraezintasunak, jarraitu beharreko prozedura, kompetentziak, kexen izapidetza eta ematen dituen ebazpenak. Nabarmentzekoa da Herriaren Defendatzaileari ematen zaion izaera, izan ere, legearen 6. artikuluan zehazten da autonomiaz eta bere irizpideen arabera beteko dituela egintzak, beste inoren aginduak jarraitu gabe.

Zentzu honetan ulertu behar da EKk jasotzen duen definizioa ere, izan ere, Gorte Orokorren menpe soilik dagoela ezartzen duen arren, horien jardunarengandik guztiz askea dela esaten da. Horrez gain, Herriaren Defendatzailearen liburuan azaltzen da: *“Así, su actuación solo se ve constreñida por la propia Constitución, que le señala claramente que para el cometido de su finalidad y objetivo –la defensa de los derechos fundamentales– le dota con la competencia de poder interponer recurso de inconstitucionalidad contra la actividad que es la más propia del mismo órgano que le nombra, la de legislar.”* (Mora, 2016).

Bere helburu nagusia oinarrizko eskubideen defentsa den heinean, figura hori konstituzio markoan kokatzea garrantzitsua da. EKren 124.1. artikulua, hurrengoa

zehazten du: *Fiskaltzaren eginkizuna da, bestelako organoek dituzten zereginei kalterik egin gabe, justiziaren ekintza bultzatzea, legezotasuna, herritarren eskubideak eta legeak babestutako interes publikoa defendatzeko, ofizioz edo interesdunek hala eskatuta; haren eginkizuna da, orobat, auzitegien independentzia zaintzea eta auzitegiotan gizarte interesa ase dadin sustatzea.* Kasu horretan, zeregin horiek ez zaizkio eskusiboki Fiskaltzari egozten, izan ere, “bestelako organoen” artean, Herriaren Defendatzailea ere egongo litzateke. Bi figura horiek oinarrizko eskubideen defentsa dute helburu, baina haien eskumenak ondo zehaztuta daude EKEn, Herriaren Defendatzaileari egozten zaio oinarrizko eskubide eta betebeharren eremua (I. titulua) eta Ministeritza Fiskalari, berriz, Botere Judizialaren ingurukoa (IV. titulua). Horrez gain, garrantzitsua da aipatzea Fiskaltzari babes-errekurtsioa tarteratzeko ahalmena soilik ematen zaio, Herriaren Defendatzaileak, berriz, horrez gain, konstituziozkontrako errekurtsioa tarteratzeko ahalmena ere baduela.

3/1981 LOaren 6.2. artikulua, bortxaezintasuna bermatzen dio Herriaren Defendatzaileari, esanez, ezingo dela atxilotu, espedientepean jarri, isuna jarri edo epaitu bere karguari dagozkion eskumenez baliatuz egiten duen egintzengatik edo ematen duen iritziengatik. Bateriaezintasunei dagokionez, autonomia eta inpartzialtasuna mantendu nahian, 7. artikulua zehazten du edozelako ordezkari mandaturekin bateraezina izango dela, bai eta kargu politikoekin, alderdi politiko edo sindikatuetan afiliatua egotearekin, edozein administrazio publikoren zerbitzu aktiboa egitearekin eta karrera judizial eta fiskalean aritzearekin, besteak beste.

Estatu mailan bermatuta egoteaz gain, Herriaren Defendatzailearen figura 2000/C 364/01 Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutunean ere jasotzen da. Hain zuzen ere, 43. artikuluan: *“Batasuneko herritar orok eta estatu kideetakoren batean bizilekua edo sozietatearen egoitza daukan pertsona fisiko nahiz juridiko orok du eskubidea Batasuneko instituzio, organo eta organismoen jardunean izandako administrazio okerreko kasuak Europako Arartekoari aurkezteko, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, bere jurisdikzio eginkizunak betetzen ari dela, alde batera utzita.”*

Espainiar estatuan aitortzen den Herriaren Defendatzaileaz gain, azaroaren 6ko 36/1985 legeak, Herriaren Defendatzailearen eta autonomia-erkidegoetan egon daitezkeen antzeko figuren harremanak arautzen ditu. Autonomia-erkidegoek autonomia-estatutu edota bestelako legeen bidez sor ditzakete figura horiek, eta funtsean Herriaren Defendatzailearen moduan, EKren I. tituluan jasotako eskubide eta askatasunak defendatzea dute helburu, eta baita autonomia-erkidego bakoitzaren eremuan herri-administrazioaren jardura gainbegiratzea.

EAEren kasuan, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren, hau da, EHAren 15. artikuluan hurrengo zehazten da: *“Euskal Herriari dagokio, Parlamentuak emandako legeaz, eta Konstituzioaren 54. artikuluan ezartzen den erakundeari dagokionez, antzeko organo bat sortu eta eratzea, berorren bidez harekin koordinatuz aipaturiko artikuluan diren funtzioak eta Euskal Biltzarrak gomenda diezazkiokeen beste edonolakoak ere bete ditzan”*. Estatutuaren 15. artikuluari jarraiki, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 27ko Arartekoari Buruzko 3/1985 Legea egin zen, Arartekoa erakundea sortu eta arautzeko.

3/1985 Legearen 1. artikulua arabera, arartekoak, Herriaren Defendatzailearen antzera, EKren I. tituluan jasotako eskubideak bermatu behar ditu, bai eta EHA 9. artikulua dakartzan demokraziako oinarri irizpide orokorrak ere. Horrez gain,

herritarrak agintaritza-gehiagikerietatik eta Euskal Herri-Ardularitzaren utzikerietatik babestea ere da bere xede nagusietako bat.

Arartekoaren izendapena Eusko Legebiltzarrak egingo du, bere araudiak dioen eran, eta aukeratua izateko, Legebiltzarkideen 3/5en gehiengo atera beharko da. Gehiengo hori lortu ezean, hilabeteko epean, beste bozketa batean gehiengo osoz onartua izan behar da. Arartekoa bost urterako izendatzen da, eta epe hau beste bost urteko aldi bakarrera soilik luza daiteke. Egun, Manuel Lezertua Rodriguez da Arartekoa, 2015ean kargua hartu eta 2021ean beste 5 urtez berraukeratua izan zen.

Arartekoaren legearen 9. artikulua, Arartekoaren jardura hiru eremutara zabaltzen du, eta bere ikerketa eremuaren barne sartzen ditu EAEko Administrazio Orokorra, lurralde historikoen ardularitza eta toki-ardularitza, azken hori EHAren 10.4. artikuluan zehaztutako aginte-eskumenen esparruan. Hiru administrazioen barne sartzen dira haien erakunde-autonomoak, sozietate publikoak eta mendeko gainerako erakunde publikoak. 9.1.d) atalak, administrazio emakida bidez jarduten duten duen edozein pertsona fisiko zein juridiko eta baita zerbitzu publiko batean jardun eta administrazio-kontrol edo tutoretzaren baten mende dagoen ezin erakunde edo entitate ere barneratzen ditu arartekoaren jarduteko eremuaren barnean.

Arartekoaren ikerketa eskumenetik kanpo geratzen dira Eusko Legebiltzarra, Eusko Jaurlaritza (jardura administratibo hutsa salbu), eta EHAren 39. artikuluan aurreikusitako Arbitraje Batzordeen funtzionamendua.

3/1985 Arartekoaren Legearen 4. atala, Herriaren Defendatzailearen eta Arartekoaren arteko harremanari eskainita dago. Hasiera batean, lege proiektua Arartekoari independentzia eta autonomia osoa ematen saiatu zen; Administrazio Autonomikoa gainbegiratzeko eskumen eskusiboa eta Herriaren Defendatzailearekin hitzarmenak eginda, autonomia-erkidegoan egoitza duen Estatuko Administrazioa ere gainbegiratzeko ahalmena emanez. EHAren 15. artikulua formulazioak eskumen horiek jasotzeko aukera irekita uzten zuen arren, Herriaren Defendatzailearen apirilaren 6ko 3/1981 Lege Organikoak argi uzten du 54. artikulua bidez atxiki zaizkion eskumenak ezingo dituela autonomia-erkidegoek sortzen dituzten antzeko figurei eskuordetu (Eguiguren Imaz, 1985). Horren ondorioz, eta oposizioan zeuden talde sozialista eta popularrak eskatuta, artikulua honen zuzenketa egin eta horrela dio egungo 36. artikulua:

1. *ARARTEKOA, bere ihardunean, Defensor del Pueblogandik aske eta bereburu da, 9.1 Atalean zehaztutako erakunde eta ihardutze-erakundeei buruzko ikermena egiteratzea dagokiola, Jorrailaren 6ko 3/1981 Oinarrizko Legearen 12. Atalaren indarrez Erresumako Herri-Aldeztailari dagozkioken agintepideen kaltetan gabe.*
2. *ARARTEKOak Defensor del Pueblarekin hitzarmenak egin ahal izango ditu eta, hoiek, bi erakundeen artean elkarkidetzeta eta elkarlaguntza gauzatzeko xedez, bateango ekintzatarako irizpideak zehaztu ahal izateko.*
3. *Hoiek egindako orotariko hitzarmenak Legebiltzarrari adieraziko zaizkio, jakin eta onar ditzan. Hitzarmen hoiek Euskal Herriko Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.*

Beraz, artikulua horretan ikus daitekeen moduan, Arartekoa eta Herriaren Defendatzailearen arteko harremana ez da hierarkikoa, elkarkidetzeta eta elkarlaguntzan

oinarritua baizik. Arartekoaren legearen 37. artikulua arabera, Arartekoak Herriaren Defendatzailearengana jo beharko du ofizioz zein interesdunaren eskariz, horrek zuzen badagokio konstituzioz kontrako edo babes helegitea tarteratu dezan. Horrez gain, Herriaren Defendatzaileari jakinaraziko dio Arartekoaren ikuskaritzapean dauden organoetako akatsak Estatuko Administrazioaren funtzionamendu txarrak eragindakoak edo estatuko konpetentziakoak diren legetatik eratorritakoak direnean, honek Estatuko Organo orokorre gomendioak egin diezazkion, hala badagokio.

## **7.2. ARARTEKOAREN AURREAN KEXA AURKEZTEA**

Herritarrek, EAEko administrazioen batekin (Udalak, Foru Aldundiak edo Eusko Jaurlaritza) edo haren mendeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat dutenean, Arartekoaren aurrean kexa, eskaera edo kontsulta bat egin dezakete. Ararteko erakundea pertsona bakar batek zuzentzen du eta horrek ere Arartekoa du izena. Erakunde independente eta alderdikierarik gabekoa da, eta euskal herritarrei doako zerbitzu publikoa eskaintzen die.

Kexa aurkeztu aurretik, eragindako administrazio publikoari erreklamatu behar zaio, eta kexa hori aurkezteko epea, egintzen berri jakin denetik hasita urtebetekoa izan behar da. Ezingo da kexarik aurkeztu arazoa partikularren edo pertsona pribatuen artekoa denean edo gaia auzibidera eraman denean. Hau da, ezingo zaio Arartekoari jada epaitegietara eraman den auzi bati buruzko kexa aurkeztu, Arartekoak ez duelako auzi horien ezta horietatik eratorritako ebazpenen aurrean herritarra babesteko ahalik.

Kexaren edukian, herritarraren datuak (izen-abizenak, helbideak, telefonoa) eta kexaren arrazoa azaltzen duen idazki bat barneratu behar da. Horrez gain, auzia ebazteko baliagarri diren agirien kopia txerta daitezke, posible denean. Kexa Arartekoari helarazteko 3 bide daude; idatziz (posta arruntaren bidez bidaliz), aurrez-aurre (Arreta zuzeneko hiru bulegoetako batean: Bilbon, Gasteizen edo Donostian) edo interneten bidez (Arartekoaren egoitza elektronikoan).

Arartekoak kexak prozedura jakin batean izapidetzen ditu, izapidetze horretan, dagokion administrazioari bere jokaera azaltzeko eta haren berri emateko eskatzen zaio. Horren ostean, eta legerian ezarritakoaren arabera kexa sorrarazi duen jarduera okerra izan dela erabakitzen bada, Arartekoak gomendio bat egingo dio administrazio arduradunari, jarduera hori aldatzeko eskatuz. Ebazpen horiek Arartekoaren web atarian argitaratzen dira.

Arartekoak, urteko txosten baten bidez ematen dio Eusko Jaurlaritzari bere jardueren eta ekitaldien berri, hau ere web orrian argitaratzen da, herritarrek ere ikusgai izan dezaten. Horrez gain, Arartekoaren ebazpenak, txosten bereziak, gomendio orokorrak, azterlanak, iritzi artikulua eta oro har, Arartekoaren jarduerari buruzko informazioa ere argitaratzen da web orrian.

2023ko urteko txostenaren arabera<sup>24</sup>, 2023an, herritarrak artatzearekin eta administrazioak kontrolatzearekin lotutako 13.062 jarduera zenbatu ziren. 8.199 izan

---

<sup>24</sup> Ararteko (2024). *Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2023 (21-44)*



ziren Arartekoari egindako kexa eta kontsultak, horien artean, 26 ofizioz bideratutako espedienteak izan ziren. Kexa idatzien gaineko 2.589 espediente ebatzi dira eta horietatik 1.540 ebazpen eman ziren, gainerako kasuak kexa-ez onartuak izan ziren. Hainbat dira kexak ez onartzeko arrazoiak, besteak beste, aurretiazko erreklamazio administratiborik ez dagoelako, eskumen eremutik kanpo dagoelako, beste herriaren defendatzaile batzuekiko bikoiztuak izan direlako, partikularren arteko auzia delako, epailearen ebazpenaren zain dauden auziak direlako, epai irmoa dutelako edo jada auzibideari ekin diotelako.

Arartekoak, kexa eragin zuen administrazioaren jardura aztertu eta jardura okerra zela iritzi zuen kasuen %53 baino gehiagotan. Eragindako administrazioak jardura hori zuzendu du kasuen ia %89an, gehienetan ez da gomendio formalik egin behar izan administrazioak Arartekoaren proposamena onartzeko. Hau da, Arartekoak administrazioari jardura hori okerra denaren informazioa ematen dionetik, administrazio horrek jarduna zuzendu ohi du, bestelako gomendio edo ebazpen formalik emateko beharra izan gabe. Datu honek erakundearen esku-hartzearen eraginkortasuna agerian uzten du.

2023an zehar Arartekoak izapidetutako kexa-espedienteen ia %46 eskubide sozialei buruzkoak izan ziren, gizarteratze, hezkuntza eta osasun arloetakoak, gehienbat. 2023ko urriaren 31n Arartekoak EITB mediarentzako egindako elkarrizketan<sup>25</sup> adierazi zuenez, hezkuntzari lotutako kexak izan dira gorakada handiena izan dutenak, batez ere ikasleak ikastetxeetan onartzeko prozesuetan hartutako erabakiengatik. Bideratutako espedientea eragin duen erakundeari dagokionez, %58 inguru Eusko Jaurlaritzak eragindakoak izan dira, %30 inguru toki-administrazioek, %9 Foru administrazioek, %2 Erakunde publikoek eta gainerakoa Eusko Legebiltzarrak.

Arartekoak, administrazioaren jardura oker edo irregularrei buruz herritarrek egiten dituzten kexak, eskaerak edo kontsultak jaso eta bideratzeaz gain, Euskal administrazioen politika publikoei buruzko diagnostikoak ere egiten ditu, batik bat txosten bereziak edo monografikoak eta azterlanak eginez. Gainera, politika horiek hobetzeko gomendioak egiten ditu, herritarren eskubideak hobeto babestu daitezten, batez ere herritar horiek egoera txarrean, gizartetik baztertuta edo baztertuak izateko arriskuan, diskriminatuta edo gizarte-estutasunean bizi badira.

Administrazio publikoen egintza edo ebazpenengandik herritarrek jasaten dituzten eskubide urraketan aurrean babesa eskaintzen du Arartekoak. Bere jarduna, eskubidea urratu duen administrazioaren aurrean erreklamazioa jarri eta urraketa hori auzibidera eramane aurretiko tartean burutzen du. Erakunde honek, zentzu batean, eskubideen babesle orokor modura jarduten du, administrazioen aurrean edozein kexa aurkeztu baitaiteke, horren izaera edozein dela ere. Hurrengo atalean, herritarren eskubideak babestu eta administrazioaren aurrean eskubide horiek babesteko bideak herritarrentzat hurbilago eta irisgarriagoak izateko zenbait proposamen egingo ditugu.

---

<sup>25</sup> Ararteko: *"El aumento de las quejas es muy importante"* (2023-10-31). EITB media. <https://www.eitb.eus/es/radio/radio-euskadi/programas/boulevard/detalle/9344730/ararteko-el-aumento-de-quejas-es-muy-importante/>

## 8. HERRITARREK ADMINISTRAZIOAREN AURREAN DITUZTEN ESKUBIDEAK ETA HORIEK DEFENDATZEKO BIDEAK INDARTZEKO PROPOSAMENAK

Herritarrek haien eskubideak eta eskubideok babesteko bideak ezagutzeak berebiziko garrantzia du, izan ere, eskubideak ez ezagutzeak, horiek baliatzeko eta babesgabezia egoera baten aurrean defendatzeko duten gaitasuna mugatzen du. Herritarren ezjakintasunaren aurrean, eskubideei buruzko hezkuntza eta kontzientziazioa hobetzeko proposamen eta ekimenak bultzatu beharko liriateke. Hurrengo atalean, herritarrentzat haien eskubideak eta horiek babesteko bideen ezagupena irisgarriagoa izateko proposamenak egingo ditugu.

Lehen proposamena, informazio plataforma digital bateratu bat sortzea da, plataforma hau irisgarria eta erabilterraza izan behar da, herritarren eskubideei eta administrazio-prozedurei buruzko informazio argia eta eguneratua emateko. Informazio hau eskuratzeko atari bakar bat sortu beharko litzateke, urratsez urratseko gidekin, deskargatzeko formularioekin eta ohiko galderekin. Gizartean dauden talde ezberdinei egokitutako informazioa izan behar da hau, sinplea eta irakurketa errazekoa, izan ere, sarritan, hizkuntza juridikoa ez da behar bezain argia eta herritarrek kontzeptu juridiko asko ulertzeko nolabaiteko zailtasunak izaten dituzte.

Liburutegien Elkartea eta Erakundeen Nazioarteko Federazioak (LENFk, edo ingelesez ezagunagoa den IFLAk, International Federation of Library Associations and Institutions), irakurketa arazoak izan ditzaketen bi irakurle mota bereizten ditu; irakurketa errazeko premia etengabea duten desgaituak (Dislexikoak, adimen-desgaitasuna dutenak, desgaitasun neuropsikiatrikoak dituztenak, gorrak, dementzia dutenak...) eta hizkuntza-gaitasun mugatua duten irakurleak (Lehen belaunaldiko etorkinak, hizkuntza ezagutzen ez dutenak, alfabetatze baxua dutenak eta haurrak) (Del Rincón García, 2023). Herritarren eskubideei eta horiek bermatzeko bideei buruzko informazioak, beraz, zenbait baldintza bete behar ditu; hizkuntza zehatza eta logikoa izan behar da, irudiak eta ilustrazioak gehitu behar zaizkio, testua indartzeko eta honen ulermen eta irisgarritasuna errazteko, eta testuaren maketazioari dagokionez, egitura ordenatua izan behar da, letra mota argia, tamaina handikoa (12-14 puntutik aurrerakoa), ezkerrean lerrokatua eta lerro bakoitzean gehienez 55-60 karaktere dituenak. Baldintza hauek betetzen badira, informazioa irakurketa errazekoa dela kontsideratuko da, herritar guztientzako ulergarria eta irisgarria.

Azken urteotan, bai Espainia mailan, Espainiako Gobernuaren web orrian ([administracion.gob.es](http://administracion.gob.es)), bai EAE mailan, administrazio publiko ezberdinen web orrietan; Eusko Jaurjaritza ([euskadi.eus](http://euskadi.eus)), Arabako Foru Aldundia ([araba.eus](http://araba.eus)), Bizkaiko Foru Aldundia ([bizkaia.eus](http://bizkaia.eus)), Gipuzkoako Foru Aldundia ([gipuzkoa.eus](http://gipuzkoa.eus)), eta bai zenbait tokiko administrazio-tako web orrietan, herritarren arretarako atalak sortu dira administrazio publiko horiei lotuta egin daitezkeen izapideen azalpenekin. Orokorrean, web orri hauetako informazioa era ulergarrian azalduta dago, esaterako, Eusko Jaurjaritzaren *Zuzenean* herritarrentzako arreta eskaintzen duen zerbitzuaren orrian, eta kasu askotan irakurketa errazaren bidez irakurtzeko aukera dago, besteak beste, Espainiako gobernuaren web orriko zenbait ataletan eta Arartekoaren web orrian. Herritarrek izapide hauen berri izatea ezinbestekoa da, baina herritarrek administrazio egintza edo

ebazpen batek haien eskubideak urratzen dituzenean hartu beharreko bidea azaltzen duen atalak faltan somatzen dira.

Ondorioz, administrazio publiko guztien izapideei eta eskubideen urraketa baten aurrean defendatzeko bideei buruzko informazioa emateko plataforma digital bakarra sortzea proposatzen dugu, jarraitu beharreko pausoak zehaztuz eta administrazio publiko horietako web orrietara zuzeneko linkak jarritz.

Aurreko atalarekin lotuta, bigarren proposamena arreta-gune orokorrak sortzea da, herritarrek leku bakar batean administrazio publiko ezberdinei dagozkien hainbat izapideri buruz galdetu, izapide horiek burutu eta eskubide urraketa baten aurrean jarrai dezaketen bideari buruzko informazioa jaso dezaten. Lehiatila fisiko hauek, hirugarren adineko pertsoneri eta, oro har, plataforma digitalean nabigatzeko zailtasunak dituzten pertsoneri zuzenduta egongo da batik bat. Bulegoko langileak herritarren eskubideei eta horiek defendatzeko bideei buruzko informazioa eskaintzeko formatuta egongo dira. Horrez gain, arreta emateko telefono zenbaki bat ere ezarri beharko litzateke, bai plataforma digitala erabiltzeko eta bai fisikoki arreta gune batera joateko zailtasunak dituzten pertsoneri ere informazio hau jasotzeko eskubidea emateko.

Arreta-gune orokor bat ezartzeak, herritarrek eskubide urraketa baten aurrean duten babesa areagotuko luke, honek ahalbidetuko lukeelako edozein administrazioren aurrean tarteratu nahi den errekurtso edo kexak bertan aurkeztea eta edozein izapide bertan egitea. Administrazio ezberdinen zerbitzuak zentralizatu eta haien datu baseak integratzeak, administrazio publikoen arteko komunikazio zuzena bermatuko luke, eta herritarrek idazki edo dokumentu bera behin baino gehiagotan aurkeztu behar izatea ekidingo litzateke.

Gai horrekin lotuta, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4. artikulua (8/2011 legearen 27. artikulua eguneratua), aipagarria da. Izan ere, bertan zehazten da, herritarrek administrazio publikoei zuzentzen dizkieten eskabide, idazki eta komunikazioak non aurkeztu ahalko diren, eta dagokion administrazioren aurrean aurkezteaz gain, b) atalean aukera ematen du edozein administrazio-organotako erregistroetan aurkezteko, toki administrazioren erregistroak barne baldin eta dagokion hitzarmena sinatu bada. Hain zuzen, esaten da administrazio publikoen artean sinatutako lankidetzak hitzarmenen bidez, erregistroen arteko komunikazio- eta koordinazio sistemak ezarriko direla, erregistroen bateragarritasun informatikoa bermatzeko, bai eta erregistro idazpenen eta edozein erregistrotan aurkezten diren eskabide, idazki, komunikazio eta dokumentuen transmisio telematikoa bermatzeko ere.

Azken urteotan, EAEko udal askok sinatu dituzte EAEren Administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko lankidetzak hitzarmenak, 30/1992 legearen 38.4.b). artikulua betetzeko asmoz. Hitzarmen horiek egitea aurrerapauso handia da herritarren eskubideak babeste aldera. Izan ere, herritarrek sarritan administrazio prozeduraren inguruan duten ezjakintasunaren aurrean, eskabide, idazki eta komunikazioak hurbilen duten erregistroan aurkezteko aukera emateak, bidea errazten die.

39/2015 legearen 16. artikulua ere, erregistroen inguruko arauketa eguneratua jasotzen du, eta bertan azaltzen da interesdunek administrazio publikoei zuzendutako dokumentuak aurkez ditzaketela zuzentzen dioten administrazioaren erregistro elektronikoan bertan edo legearen 2.1. artikuluan jasotako gainerako administrazioen erregistro elektronikoan. Hau da, estatuko administrazio orokorraren, autonomia erkidegoetako administrazioen, toki-administrazioa osatzen duten entitateen eta sektore publiko instituzionala osatzen duten ezein entitateren erregistro elektronikoan. Horrez gain, legeak ezarritako baldintzetan Correoseko bulegoetan, Espainiak atzerrian dituen diplomaziako ordezkartzetan, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan eta indarrean dauden xedapenek ezartzen duten beste edozein lekutan ere.

Administrazio ezberdinen izapide eta prozedurak zentralizatzearekin batera, garrantzitsua litzateke administrazio prozedurak sinplifikatu eta ulergarriagoak egitea, herritarrek erraz jarrai ditzaten. Administrazio prozedurak konplexu eta burokratikoak izan ohi dira, eta hauek berrikustea eta prozeduraren pausoak murriztea komenigarria litzateke. Administrazioak bere jardueraren eraginkortasun eta efizientzia handiagotzearekin bat dator proposamen hau, izan ere, sinplifikazio printzipioa jarraitu eta administrazio-prozeduren denborak eta epeak murriztu ahalko lirateke (Cerrillo Martínez, 2011).

Lehen esan bezala, dokumentu eta komunikazio ofizial guztietan hizkera argia eta ulerterraza izan beharko litzateke, teknizismoa saihestuz. Gainera, inprimaki estandarizatuak sortu beharko lirateke, antzeko izapideetarako dokumentuak bateratuz eta horrela, behar diren formulario kopurua murriztuz. Egia da, gai honen inguruan 39/2015 legearen 115.2. artikulua herritarrentzat onuragarria den berrikuntza bat gehitu zuela. Sarritan herritarrek errekurtsoen izenak eta kalifikazioak nahasten dituztela ikusita, errekurtsogileak errekurtsolari okerreko kalifikazioa emateak edo kalifikaziorik ez jartzeak, errekurtsu hori izapidetzeko oztupoa izateari utzi zion, errekurtsuaren edukiagatik bere izaera ondoriozta daitekeen bitartean.

Herritarrei administrazio publikoarekin harremanak errazteko aurrera-pausoak eman diren arren, haien eskubideak bermatzeko bideak indartu behar dira, batez ere, bitarteko elektronikoak erabiltzen direnean. Egoitza elektronikorako, prozedura jakin baterako edo prozedurako edozein inguruabarretarako sarbidea lortzeko ezintasunak batzuetan dakartzan zailtasunengatik (Arartekoa, 2021, 50). Bitarteko digitalak erabiltzeari dagokionez, gero eta desoreka handiagok daude horiek erabiltzen eta erabiltzen ez dituzten pertsonen artean, horrek, etorkizunean arazo larriagoak eragiteko arriskua dago, pertsonen arteko arteko genero, adin edo ekonomia ezberdintasunengatik sortzen baitira. Digitalizazioa prozesu geldiezina den arren, Europar Batasunak aitortu duen moduan, giza eskubideak eta askatasun publikoak errespetatu eta indartzea ezinbestekoa da, eta argi izan behar da teknologia dagoela pertsonen zerbitzura eta ez pertsonak teknologiaren menpe.

Plataforma digitzalez eta aurrez aurreko bulegoetz gain, herritarren ezjakintasunaren aurrean, haien eskubideak aldarrikatzeko dituzten bideen laburpen orriak eskuragarri jarri beharko lirateke herritarrek maiz joaten diren tokietan. Besteak beste, udaletxe eta herritarren arreta guneetan, osasun zentro eta ospitaleetan, liburutegi eta kultur etxeetan, eskola eta unibertsitateetan eta garraio publikoan. Informazio orri horretan,

herritarrek dituzten eskubideen eta eskubide horien defentsa bideen laburpena egiteaz gain, gai horren inguruko informazio zehatzagoa jasotzeko puntuak zeintzuk diren adieraziko da; plataforma digital bateratua, aurrez aurreko bulegoen helbidea eta dei dezaketen telefono zenbakia. Eranskinen atalean, informazio orri horren diseinuaren adibide bat dago jasota, irakurketa errazak eskatzen dituen moldaketak kontuan hartu ditut, eta informazio guztia era labur eta argian azalduta dago, informazio orri hau eskuratzen duten pertsona guztientzat ulergarria izan dadin.

## **9. ONDORIOAK**

Lehen atalean ikusi dugun moduan, herritarrek zenbait eskubide dituzte bermatuta administrazio publikoekiko elkarreraginean, hala nola, administrazio publikoarekin irispide puntu elektronikoko baten bidez komunikatzeko, norberaren autonomia erkidegoko lurraldean ofizialak diren hizkuntzak erabiltzeko, errespetuz eta begirunez tratatuak izateko, beren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko erraztasunak jasoz, administrazio publikoen eta agintarien erantzukizuna eskatzeko eta EKK eta legeen aitortzen dizkien beste zenbait eskubide, horien artean oinarrizko eskubideak daudelarik.

Eskubide horiek bermatzeko, arau esparru sendo bat sortu behar da, herritarren interesak babestu eta administrazio publiko garden eta eraginkorra bermatzeko. Babesgabezia egoeraren aurrean ekiteko berme horiek, zenbait defentsa bideren bidez aitortzen dira. Lehen instantzian, herritarrek administrazio bidera jo behar dute, bertan administrazio errekursoak, erreklamazioak eta kexak aurkeztuz; errekursoei dagokionez, aztertu dugun moduan; gora jotzeko errekurtoa, aukerako berraztertze errekurtoa eta berrikuspen errekurso berezia. Errekurto horiek aurkezteko baldintza orokorrez gain, errekurto bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu behar dira.

Administrazio bidearen bidez gatazka konpondu ezean, herritarrek bide judizialera jotzeko aukera dute, betiere, eta egungo legedia zorrotz interpretatuko bagenu, administrazio bidea agortzeko baldintzak bete ostean. Administrazioarekiko auzi errekurtoa tarteratzea litzateke, auzitegiak administrazio publikoaren erabakiak berrikustea eskatzeko bidea. Horrez gain, herritarren oinarrizko eskubide edo askatasun bat urratu den kasuetan, babes-errekurtoa ere tarteratu ahalko litzateke, bai jurisdikzio arruntaren aurrean eta zenbait kasutan baita AKren aurrean ere.

Administrazio bidez eta jurisdikzio bidez gain, administrazio txarraren, botere gehiegikerien eta oinarrizko eskubideen urraketaren aurrean, herritarren eta administrazio publikoen arteko gatazkak konpontzeko erakunde independente bat dago, Herriaren Defendatzailea edo Arartekoa. Erakunde honek, herritarrek jarritako kexak aztertu eta bitartekari lana egiten du, honen eta dagokion administrazioaren artean, administrazioaren jardun okerraren aurrean proposamen eta ebazpen alternatiboak emanez.

Defentsa bideak, administratiboak zein judizialak, eta Herriaren Defendatzailearen eta Arartekoaren figura funtsezko tresnak dira herritarren eskubideen babesa

bermatzeko. Hala ere, defentsa bide horien eraginkortasuna kolokan jartzen du burokraziak, prozesu judizialen moteltasunak eta herritarrek bide hauen inguruan duten ezagutzarik ezak. Lehen azaldu moduan, prozesu administratibo eta judizialen eraginkortasuna areagotzeko erreformak egin beharko lirateke, eskuragarriagoak, azkarragoak eta gardenagoak izateko. Optimizazio hori lortzeko, prozedurak sinplifikatzea, funtzionarien prestakuntza hobetzea eta herritarren eta administrazioaren arteko interakzioa errazteko bideak sortu beharko lirateke.

Eskubideen eta defentsa bideen inguruko ezagutza eta hezkuntza funtsezkoak dira herritarren babesgabezia egoera ekiditeko. Aurreko atalean azaldu moduan, sentsibilizazio eta informazio kanpainia ezartzea funtsezko estrategiak dira helburu hori lortzeko. Erakunde publikoen, erakunde akademikoen eta komunikabideen arteko lankidetzak funtsezkoa da herritarren eskubideen eta defentsa-bideen ezagutza sustatzeko eta zabaltzeko. Hori lagungarria da eskubideen babesa eraginkorragoa izateko eta zerbitzu publikoak kalitate handiagoz emateko.

Herritarren eskubideen defentsa eraginkorrak eta herritarren eta administrazio publikoen arteko harremanen hobekuntzak zuzenbide-estatua indartzen laguntzen dute. Herritarrak informatuta egotea eta beren eskubideak defendatzeko gai izatea funtsezkoa da demokraziarako eta justizia sozialerako. Lanak erakusten duenez, herritarren eskubideak errespetatzen eta babesten dituen administrazio publiko bat ziurtatzeko, funtsezkoa da, lege-esparru egokia izateaz gain, defentsa-bideen eraginkortasuna bermatzea eta herritar informatuak eta heziak sustatzea. Azterlan honetan aurkeztutako erreforma-, hezkuntza- eta erakunde-arteko lankidetzak proposamenak funtsezko urratsak dira herritarren eta administrazio publikoen arteko elkarrekintza bidezkoagoa eta eraginkorragoa lortzeko.

## BESTELAKO BALIABIDEAK

### ARARTEKOA

[www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)



Euskal Autonomia  
Erkidegoko  
administrazioaren baten  
aurrean kexa, eskaera  
edo kontsultak egiteko.

### HERRIAREN DEFENDATZAILEA

[www.defensordelpueblo.es](http://www.defensordelpueblo.es)



Espainiako administrazio  
publikoaren aurrean  
herritarren oinarritzko  
eskubideak eta  
askatasunak defendatzeko.

## INFORMAZIO GEHIAGO



945-234-5678



[herritarrak@informazioa.eus](mailto:herritarrak@informazioa.eus)



[www.herritarrak.eus](http://www.herritarrak.eus)




Zugandik hurbilen dagoen  
informazio bulegoa

KONTSULTATU  
BULEGO  
HURBILENA



## EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK

### HERRITARRENTZATKO GIDA PRAKTIKOA



## ADMINISTRAZIOAREKIKO ESKUBIDE NAGUSIAK



Administrazio on baterako eskubidea: Errespetuz eta begiinez tratatuak izatea.



Informazioa erraz eskuratzea.



Hizkuntza ofizialak erabiltzea.



Datu pertsonalak babestea.



Administrazio publikoei eta agintariei erantzukizuna eskatzea.



Administrazioarekin harremanetan baliabide elektronikoak erabiltzea.



Konstituzioak jasotzen dituen gainerako eskubideak betetzea.

## ERREKURTSO MOTAK

Egintzaren arabera, administrazio eta epe ezberdinetan jarri behar dira errekurtsoak.

**Gora jotzeko errekurtsoa eta**

**Aukerako Berraztertze errekurtsoa:**

**Nori zuzendu?** Egintza egin duen

organoaren gainekoari edo organoari berari.

**Noiz?** Jakinarazpenetik **hilaibete** epean, jakinarazi ez bada, edozein momentutan.

**Berrikuspen Errekurtso Berezia:**

**Noiz?** **4 urte** (Egitezko oker bat dagoenean).

**3 hilaibete** (Dokumentu berriak agertu direnetik edo egintza ematean faltsukeria edo indarkeria egon dela deklaritzen duen ebazpena irmoa denetik).

## KONTROL JUDIZIALA

**Administrazioarekiko Auzi-Errekurtsoa:**

**Noiz?** Administrazio bidea agortzen duen egintza eman denetik **2 hilaibete**ko epean.

**Auzitegi Konstituzionalari babes-errekurtsoa**

**Noiz?** Oinarritzko eskubide edo askatasuna urratzen duen egintza administratiboa jakinarazi denetik **20 egun**.

## ERREKURTSO BAT JARTZEKO URRATSAK



**DOKUMENTAZIOA BILDU**

Jakinarazpenak, ebazpenak, frogak....



**ERREKURTSOA IDATZI**

Egintza, oinarri eta eskaera zehatzak jaso.



**ERREKURTSOA AURKEZTU**

Edozein administrazioaren errejistro fisiko/digitalan, Correoseko bulegoetan, eta legeak jasotzen dituen gainerakoetan.



**JARRAIPENA EGIN**

Ebazpena ezezkoa denetan hurrengo errekurtsoa prestatzen hasteko.



**LAGUNTZA GEHIGARRIA**

Etorri informazio eta arreta bulegoetara.



## 11. BIBLIOGRAFIA

### DOKTRINA

Aragón Reyes, M. (1987). *El Recurso de Amparo*. Anales de estudios económicos y empresariales, Nº 2, (247-260).

Ararteko (2021). *Oraingo eta etorkizuneko eten digitala lehengoratzeko ekintzak*. Administrazio digitala eta herritarrekiko harremanak. Euskal administrazio publikoetarako aplikazioa. (29-53).

Ararteko (2024). *Eusko Legebiltzarrentzako urteko txostena 2023* (21-252).

Blasco Pellicer, Á. (2016). *Reclamación administrativa previa: últimos pronunciamientos jurisprudenciales antes de su parcial desaparición*, Trabajo y Derecho, nº 22, Wolters Kluwer, (1-15).

Bravo Virumbrales, F.-A. (2022). *Diferencias en el tratamiento legal de las obligaciones de relacionarse electrónicamente, de identificarse y de emplear firma electrónica*. Revista jurídica de la Comunidad de Madrid.

Cerrillo Martínez, Agustí (2011). *¿Cómo facilitar el ejercicio de los derechos de los ciudadanos en la administración electrónica?*. Administración electrónica tributaria. IDP. Revista de Internet, Derecho y Política. N.º 12, (31-43).

Chaves García, J.R. (2023). *La estrecha puerta de la revisión de oficio de actos administrativos. Consultor de los ayuntamientos y de los juzgados*. Revista técnica especializada en administración local y justicia municipal. nº 2.

Cicero Seira, C. (2016). *Los recursos administrativos en España*. Universidad de Lleida. XI Congreso de la Asociación Española de Profesores de Derecho Administrativo. (64-89)

Cid Villagrasa, B. (2022). La doctrina del Tribunal Supremo sobre el alcance de la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno. *Revista Parlamentaria de la Asamblea de Madrid*, 42, 177-195.

Cotino Hueso, L. (2018). *La obligación de relacionarse electrónicamente con la Administración y sus escasas garantías*. IDP: revista de Internet, derecho y política = revista d'Internet, dret i política, 26, (3-14).

Del Rincón García, M<sup>a</sup>-F. (2023). *Parlamento y lectura fácil*. Actas de las XVIII Jornadas Españolas de Información y Documentación, (52-70).

Eguiguren Imaz, J. (1985). *El "Ararteko" o Defensor del Pueblo Vasco*. Revista de estudios políticos. 46-47, (585-608).

Espinosa Díaz, A. (2010). *El recurso de amparo: problemas antes, y después, de la reforma*. InDret: Revista para el análisis del derecho Nº 2.

Fabeiro Fidalgo, P. (2015). *El nuevo recurso de amparo constitucional*. Revista Vasca de Administración Pública. Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria, Nº 102, (161-181). doi: <https://doi.org/10.47623/ivap-rvap.102.2015.04>.

Fernández Rodríguez, T.-R. (1990), *Reflexiones sobre la utilidad de la vía administrativa de recurso*, Documentación administrativa, (5-12).

Fernández, T.-R. (2024). *El recurso de amparo constitucional y el recurso de casación contencioso-administrativo: la atracción fatal del certiorari norteamericano*. Revista de Administración Pública, 223, (141-168). doi:<https://doi.org/10.18042/cepc/rap.223.005>

Gámez Clemente, R. (2022). *Revisión de actos administrativos* (TFG). Universidad de Jaén.

García de Enterría, E (2001). *Problemas del Derecho Público al comienzo de siglo*. Civitas, Madrid, (58).

Górriz Gómez, B. (2009). *El plazo para interponer el recurso contencioso-administrativo en los casos de desestimaciones presuntas por silencio administrativo*. Boletín del Ministerio de Justicia, 63. nº2099 (3013-3033).

Huergo Lora, A. (2023). *Control Judicial de la Administración: Manual de Derecho administrativo: Revista de Derecho Público: Teoría y Método* (853–889). Marcial Pons Ediciones Jurídicas y Sociales.

Jiménez Asensio, R. (2021). Administración digital y relaciones con la ciudadanía. Su aplicación a las administraciones públicas vascas. En *Revista Vasca de Gestión de Personas y Organizaciones Públicas*.

Mora, A. (2016). *El Libro del Defensor del Pueblo*. Defensor del Pueblo.

Martín Delgado, I. (2017). *La reforma de la administración electrónica: una oportunidad para la innovación desde el Derecho*. Madrid: INAP.

Palomar Olmeda, A. (2016). *Derechos de los ciudadanos y de los interesados en sus relaciones con la Administración*. Revista Española de Control Externo, vol. XVIII, n.º 54, (77-112).

Pascua Mateo, F. (2016). *La administración electrónica en las nuevas leyes de régimen jurídico y de procedimiento*. Asamblea: revista parlamentaria de la Asamblea de Madrid, nº34, (197-224)

Pozo Bouzas, E.-G. (2016). *Los recursos administrativos en el marco de la Ley de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Especial referencia al ámbito local* - Lefebvre El Derecho - Administrativo, Sector jurídico. ELDerecho.com noticias jurídicas y de actualidad.

Ridaura Martínez, M.-A. (2017). *El recurso de Amparo*. Derecho constitucional. Tirant Lo Blanch, 13, (1-38).

Rodríguez-Arana Muñoz, J. (2012). *El Derecho a la buena administración en las relaciones entre ciudadanos y Administración Pública*. Universidad de A Coruña.

Rodríguez Ayuso, J.-F. (2021). *Criterios para el acceso oficial de ciudadanos especialmente vulnerables a servicios prestados por las Administraciones Públicas*. Revista jurídica de Castilla y León, Nº 53, (147-175).

Sala Sánchez, P. (2016). *Reflexiones puntuales sobre algunos aspectos de las nuevas Leyes de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y de Régimen Jurídico del Sector Público*. Revista española de control externo. Vol. 18, Nº 54, (13-37)

Sánchez Pérez, P. (2017). *Agotamiento de la vía administrativa previa a la jurisdicción social, tras la Ley 39/2015 del procedimiento administrativo común de las Administraciones Públicas*. Revista General de Derecho del Trabajo y de la SS, (45-48).

Sevilla Duro, M.-A. (2023). *Garantías jurisdiccionales de los derechos fundamentales: el recurso de amparo ordinario y el recurso de amparo constitucional*. Supuestos prácticos de Derecho Constitucional, (153-162).

Viñuales Ferreiro, S. (2015). *El artículo 41 de la carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea: una visión crítica*. Estudios De Deusto. <https://revista-estudios.revistas.deusto.es/article/view/190/314>.

## LEGEDIA

- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onartzen duena
- 6/2020 Legea, azaroaren 11koa, konfiantzazko zerbitzu elektronikoen alderdi jakin batzuk arautzen dituena.
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 910/2014 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko uztailaren 23koa, barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako

identifikazio elektronikoari eta konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen duena

- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa
- 36/2011 Legea, urriaren 10ekoa, lan-arloko jurisdikzioa arautzen duena.
- 2010/C 83/02 Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna
- 11/2007 Legea, ekainaren 22koa, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoa.
- 2000/C 364/01 Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena (Indargabetua)
- 36/1985 Legea, azaroaren 6koa, Herriaren Defendatzailearen Erakundearen eta autonomia-erkidegoetako antzeko figuren arteko harremanak arautzen dituena.
- 3/1985 Legea, Eusko Legebiltzarrarena, otsailaren 27koa, Arartekoa erakundea sortu eta arautzekoa
- 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzekoak
- 3/1981 Lege Organikoa, apirilaren 6koa, Herri Defendatzailearena.
- 1980ko martxoaren 11ko Ministroen Batzordearen Gomendioa (R (80) 2), administrazio-agintariek ahal diskrezionalak erabiltzeari buruzkoa
- 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- 2/1979 Lege Organikoa, urriaren 3koa, Konstituzio Auzitegiari buruzkoa.
- 1978ko Espainiar Konstituzioa

## **JURISPRUDENTZIA**

### **Auzitegi Gorenaren ebazpenak**

- Auzitegi Gorenaren 2017ko urtarrilaren 11ko 57/2017 ebazpena
- Auzitegi Gorenaren 2018ko maiatzaren 21eko 815/2018 ebazpena
- Auzitegi Gorenaren 2019ko uztailaren 12ko 2496/2019 ebazpena
- Auzitegi Gorenaren 2020ko azaroaren 19ko 3866/2020 ebazpena
- Auzitegi Gorenaren 2021eko otsailaren 24ko 694/2021 ebazpena

### **Auzitegi Konstituzionalaren ebazpenak**

- Auzitegi Konstituzionalaren 1981eko urtarrilaren 26ko 1/1981 ebazpena
- Auzitegi Konstituzionalaren 1993ko uztailaren 20ko 254/1993 ebazpena
- Auzitegi Konstituzionalaren 2005eko abenduaren 13ko 275/2005 ebazpena
- Auzitegi Konstituzionalaren 2009ko ekainaren 25ko 155/2009 ebazpena
- Auzitegi Konstituzionalaren 2011ko azaroaren 2ko 9273/2011 ebazpena
- Auzitegi Konstituzionalaren 2018ko urriaren 17ko 112/2018 ebazpena